



# ETB

## Aldaketarekin kalitatea eskatu da

- **Julen Arzuaga:** «Edozein gazte errebelde tratatu dute ETAn sartzeko helburua balu bezala»
- **Net Hurbil** Mexikon zalantzan dago narkoen kontrako gerra
- **Mac Maharaj,** Hegoafrikako bake prozesuko idazkaria: «Negoziatzeko orduan, konfiantza ez zen elementu garrantzitsua izan»
- **Irati Jimenez:** «Liluratu egiten nau agintearekin dugun harremanak»
- **Iraide Ibarretxe:** «Onomatopeiak ez dira ikertzen eta ez dira umeen gauzak»



# Larrun 145

Datorren asteko **argia** rekin

## Kontsumoaren gizartea

### Mahai-inguruko solaskideak

Antton Pérez de Calleja  
Lucio Tabar  
Andoni Eizaguirre

### Iritziak

Annie Leonard  
Nicolas Ridoux



- Egungo eredu ekonomikoa, ezinbestean amildegira garamatzan planteamendua?
- Bideragarriak eta bateragarriak al dira beste eredu batzuk, garapen ekonomikoarekin?
- Barne Produktu Gordina, indize desegokia.
- Kontsumismoaren atzaparretan, gu geu prest gaude bizimoduz aldatzeko?



Azaleko irudia:  
ETB  
Azala: GARBINE  
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Joxe Mari Irazusta. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Olatz Kortza.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxa: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3 eskuinta. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: 13. P.K. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: Adur Software Productions. S.Koop. Elk. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza  
diruz lagundua



**GIPUZKOA**  
zurekin, aurrera»



**kutxa**



• **NON ZER** •

2010eko uztailaren 25a, 2.240. zenbakia

## Deabruaren abokatua

- **Josune Bereziartu:** «Marketina oso krudela da». SUSTRAI COLINA / 4

## Asteko gaia

- **ETB eta ekoiztetxeak.** Tartaren banaketa berria huts egiten ari da. UNAI BREA / 5

## Pertsonaia

- **Roman Garate:** «Euskara desagertuko balitz, 'Euskal Herri ohia' esango genuke». MIEL A. ELUSTONDO / 10

## Gaiak

- **Sathyandranath Ragunanan 'Mac' Maharaj:** «Askatasuna ez da zapalduarentzat bakarrik, zapaltzailearentzat ere bada». LANDER ARBELAITZ / 15

## Iritziak

- **Ttakun (h)errenka** I need Euskadi. ANA URKIZA / 20
- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENETA / 21
- **Nazio zatiezina.** URTZI URRUTIKOETXEA / 22
- **Txandan** Lehendakari. ANDONI MUJICA / 22
- **Izendaezinaz.** ALAITZ VIVES / 23
- **Hiruko txikian** Bukatu da. JOXEMARI OSTOLAZA / 23
- **Bertsotxo berriak** Elizari jarriak. AITOR ALBISTUR / 24

## Erdiko kaiera

- **Irati Jimenez:** «Moralistegia da gizartea eta moralistegiak gara denok». GORKA BEREZIARTUA / 25
- **Nazioarteko folklorea** gurean zabaldu duen jaialdi aitzindaria. UNAI BREA / 28
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 29
- **Liburuak** IGOR ESTANKONA / 30
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 31
- **Ezpalak** JON TORNER / 32
- **Abarrak** MIKEL ASURMENDI / 33
- **Osasuna** JABIER AGIRRE / 34
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 35
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 36

## Termometroa

- **Julen Arzuaga:** «Gazteak harrizko gonbidatuak dira justiziaren aurrean». MIKEL ASURMENDI / 37
- **Bilboko Burtsa.** Atzo 50.000 pezetako haurra, gaur milioika euroko erraldoia. DANIEL UDALAITZ / 40
- **Iraide Ibarretxe:** «Hizkuntzalari dezente eurozentristak dira, ikuspuntua beti da ingelesa». ONINTZA IRURETA AZKUNE / 42
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA, XABIER LETONA / 46
- **Net Hurbil** Mexikoko narkoen aurkako gerraren bederatz mito. PELLO ZUBIRIA / 48

## Azkena

- **Libertadea.** JOSE IGNAZIO ANSORENA / 50



## “Marketina oso krudela da”

Josune Bereziartu | 9A+ baino gehiago

Lotu arnesa, eta...

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Dani Blanco

### Eskalatzea beti gorago joatea da?

Niretzat kontua ez da zer egiten duzun, nola egiten duzun baizik. Horma bakoitzaren aurretik lan, esfortzu, eta ibilbide bat dago, eta horrek erakartzen nau, horrek motibatu.

### Oso polita... mundu guztia azken emaitzarekin geratuko ez balitz.

Jendeak titularra irakurtzen du, ez artikulua, emaitza ahaleginaren isla dela sinesteraino. Baina horma txiripaz igo baduzu, zer? Eta zorte txarraren erruz egin baduzu kale?

### Esadazu sistemak egiten duela kale eskalada lehiaren espektrotik agertuz.

Natura eta norbere buruarekiko lehia ez dira txarrak. Zergatik uste duzu idatzizko araurik eta arbitrorik gabe moldatu garela hainbeste urtean? Hori posible egin duten baloreak distortsionatzen dituenak soilik ikusiko du eskalada lehiaren espektrotik.

### Nahi duzuna, baina zu badaezpada kirol eskaladatik alpinismora pasa zara!

Sortzailea izan nahi dut, etengabe ate berriak ireki, eta kirol eskaladan zabaldu nitzakeen ate guztiak irekita neuzkan. Errepikatzeak deseroso sentiarazten nau, eta aurrera egiteko mundu berri eta ezezaguna behar nuen aurrean.

### Eskalatzailea ez, zu filosofoa zara!

Mendia bizimodu bezala ulertu dut beti, ez lehia gisa. Bidaia, mila izarreko hotelean lo egin, mundua konpondu... Ni hasi nintzeanean ez zegoen rokodromorik, eta eskalatzeko

ra joateak guretzat suposatzen zuenak diskurtso bat sortu eta sentiarazi zigun.

### Mendizaletasuna tabernara joateko Ternua galtzak eta Salomon botak janztea baino gehiago da, ala?

Euskaldunak janzkeraz haragoko mendizaleak gara. Mendizaleak ez gara Pirinio edo Alpeetara goazenak soilik. Zer uste duzu direla Adarra, Txindoki, Anboto edo Larrunera doazenak? Eta perretxikuzaleak?

### Perretxikuzaleari bai, baina alpinistari zer axola dio aurrena edo bigarrena izateak?!

Marketina oso krudela da. Marketinaren ikuspegitik, aurrena izateak ematen dizuna kentzen dizu bigarrena izateak.

### Jakina, jan nahi duen eskalatzaileak komertzialak baino gehiago jakin behar du marketinaz.

Beti mantendu dut askatasuna. Egin dudana egin nahi nuelako egin dut, ez esponsor batek agindu didalako. Ez diet inoiz markarik hitzeman, bidean aurrera egiteko modu jakin bat baizik. Hori onartzen ez duena haizea hartzea bidaltzeko ez daukat arazorik.

### Alpinismoaren matraka ere saldu diezu ala Josune zarelako babesten zaituzte?

Alpinismoa baino askoz errazago saltzen da kirol eskalada. Zergatik? Kirol eskaladan edo himalayismoan titular motz bat ematea oso erraza delako, baina alpinismoan zer zentzu dauka aurrena izateak? Zorionez, nire kasuan, nire ibilbidea nire nortasunaren isla da. ■

## ETB eta ekoiztetxeak

# Tartaren banaketa berria huts egiten ari da

Alde zein kontrakoentzat, EITBren azken urteko bilakabidea EAEko gobernu aldaketaren ikurretako bat bihurtu da. Egoera berriak programazioari eragin dio nabarmen, eta horrekin batera, ekoiztetxeei. Tartaren banaketa zeharo aldatzen ari da; lehen aparretan zebiltzanen ustez irizpide ideologikoez gidatzen dute EITBren jarduna, kalitatea kontuan hartu gabe eta haren kalterako. EITBk dio ekoiztetxe guztiei aukera berdinak ematea dutela helburu. Lehen ez bezala.

UNAI BREA

ALDAKETA, ALDAKETA, ALDAKETA... Euskadi diferente baten promesa egin zien PSEk EAEko hautesle konstituzio-zaleei, iazko hauteskunde-kanpainan. Ondoren ere, Ajuria Eneara iritsi ostean, lelo bera izan du behin eta berriz mintzagai Patxi Lópezek: bere gobernuak ekarri ei dituen onuren ardatza da, zorioneko aldaketa. Iragarrita zegoenez, EITB izan zen kanbioa azkarren jasaten hasi zen erakunde publikoetako bat. Emaiza aski

ezaguna da: igaro den urtebete honetan, ETBren parrilla –irradiaren azterketa beste baterako utziko dugu– aro jeltzalean zegoenarekiko aldatzen zihoan heinean, kritikak ia bazter guztietatik iritsi zaizkio Alberto Surio-  
ren lantaldeari.

ETBren ildo editorialak izandako metamorfosiaz igerileku olinpiko bat betetzeko adina tinta isuri da honezkero; ez da hori erreportaje honen gaia. Komeni da gogoratzea,

EITBren Miramongo egoitza, Donostian.

DANI BLANCO



hala ere, inor ez litzatekeela harritu behar aldaketa horiengatik. Hedabide publikoak unean uneko gobernuaren hain menpekoak diren sistema honetan, horixe da logikoa. Arazoa areagotu egiten da, ordea, aldaketak produktuaren kalitatea –ideologiaz gaindiko irizpideekin neurtua– jaitsiarazten duenean. Eta hori bada erreportaje honen gaia.

### **ETBren eta ekoiztetxeen arteko harremana**

Ezer baino lehen, apur bat argitu dezagun zertaz ari garen. Gauza jakina da telebista-kate batek, publiko zein pribatu, ezin deza-keela bere kasa sortu egunean emititzen duen programazio osoa. Ekonomikoki eutsi ezinezkoa litzateke eredu hori. Telebistek ekoiztetxeen beharra dute, baina alderantziz ere bai: ekoiztetxeen sektoreak –ez ekoiztetxe guztiek– telebistaren beharra du. Sinbiosi horren bi noranzkoetatik, bat legediak ezarritakoa da, bai behintzat Espainiako Estatuan eta kate publikoei dagokienez. Hala, ETB behartuta dago EAEko ikus-entzunezko sektorearen sostengua izatera, traktorea. Maia-tzetik indarrean dagoen ikus-entzunezkoen espainiar legeak hori berretsi eta are indartu du hein batean, telebistek proiektu berrien finantzazioari bideratu beharreko portzenta-jeak handitu baititu oro har, nahiz eta kasu batzuetan atzerakada izan den. Kontua da neurri horrek, berez, ez dituela ekoiztetxeak estutasunetik libratzen.

Ikus-entzunezko sektorea oparoa da EAEn. Oparoa diogunean, enpresa asko dau- dela esan nahi dugu, ez enpresa horiek apa- rretan bizi direla. Kontrakoa da, salbuespe- nak salbuespen. Kontsultatu ditugun eremu horretako profesional guztiak, bakoitza bere ñabardurekin, bat datoz: ekoiztetxe gehiegi dago. Telebista propioa izateak eragiten du EAEk ikus-entzunezko sektore handia edu- kitzea, baina behiak ez du denentzat esnea ematen, lau errape besterik ez du eta. Bestela esanda, ETBk ezin du emititu egunero 24 ordu baino gehiago. Horri gehitu behar zaio errape txiki samarrak dauzkala, aukeran: batetik, krisiak aurrekontu murrizketa eragin du; bestetik, iraupen luzeko zenbait saio ditu parrillan, beste txahalek aprobetxatu ezin dituzten ordu asko jaten dituztenak. Eta hiru- garrenik, sektorea sustatzera behartuta ego- teak ez du esan nahi ETBk enpresa guzti- guztiei jaten eman behar dienik.

### **ETB, ekoiztetxeentzat funtsezkoa**

Erraz ondorioztatzen da testuinguru horretan ekoiztetxe guztiek ez dituztela telebistarako produktuak sortzen. Batzuek zinema dute lan-eremu bakarra, beste batzuek biak, eta txi- kienetako batzuek ez bata ez bestea: hortik



kanpo geratzen diren ogi apurretatik bizi dira. 60tik gora enpresa daude Euskal Herrian –Nafarroan gutxi eta Iparraldean ia bat ere ez–, eta bi heren inguru IBAIA ekoiztetxeen elkarteko kideak dira, ETBrako lan egiten duten gehienak barne. Joxe Portela IBAIaren presidentek dioskunez, “ekoiztetxe gehienek diote ez dela ona sektorerako hainbeste enpresa egotea; izan ere, ekoiztetxe handirik ez dago. Eta askok badakite ezinezkoa dela beraientzat telebistarako produktuak sortzen hastea”. Nolanahi, sektoreak batez ere ETB- tik jaten duela dio Portelak. Zinema egiteko behar den finantzazioaren zati bat ere, azken batean, telebistaren patrikatik ateratzen da.

Euskal Produktoreen Elkarteak (EPE) eus- kal ekoiztetxeen beste herena biltzen du. Zineman dihardutenak dira nagusi, baina tele- bista mundua ez zaie arrotz. Carlos Juárez presidentearen hitzetan, “hemen dagoen ekoiztetxe kopurua izugarria da, beste sektore batzuek aspaldi nozitutako birmoldaketa egi- teke dago gurean. Legearen arabera ETBk izan behar du ikus-entzunezkoaren motorra EAEn, egia, baina hainbeste enpresa egonda, jabetzen hasi beharko dugu lehiakortasun iriz- pideen arabera lan egin behar dugula, eta ezin gaitezkeela bizi telebista-kate bakar batetik”. Juárezen ustez, irtenbidea Estatuko merka- tuan lehiatzea da. Zenbait euskal ekoiztetxe- ta- ko arduradunek esan digutenez, ordea, emai- tza gutxi duen lan eskerga da hori. Kate pribatu handiak, batez ere, debekatutako ere- mua dira, Madrilen egoitza daukaten ekoizte- txek gutxi batzuekin baizik ez baitute lan egiten. Nekez onartzen dituzte kanpoko ideia berriak.



DANI BLANCO

### Aro berria

Testuinguru horretan iritsi zen ETBko zuzendaritza aldaketa, duela hamalau hilabete. Lehenbiziko neurriak azkar hartu zituen Alberto Surioren lantaldeak, ez polemika gutxirekin, baina programazioan, oro har, denbora gehiago behar izan zen aldaketa sumatzen hasteko. Besteak beste, aurreko zuzendaritzak ekoiztetxeekin sinatutako kontratuak errespetatu behar zituztelako.

Ekoiztetxeek aurtengo otsailean izan zuten ETBko arduradunen asmoen berri modu zuzenean. Joxe Portela IBAIAko presidenteak azaldu digunez, “bai gu bai EPE deitu gintuzten bilera batera, eta han esan ziguten ordura arteko politika aldatuko zutela: atek zabalduko zizkietela enpresa guztiei, eta ez, lehengo zuzendaritzak bezala, gutxi batzuei bakarrik”. Kontua ez zen guztiz berria ere. Asmo horien aurrerapena Eusko

**Legeak aginduta, EAEn EITB da ikus-entzunezko sektorearen traktorea. Praktikan, haren menpekotasun handia daukate enpresa askok.**

Legebiltzarrean egin zuen Suriok iazko azaroan. Adierazi zuenez, ETBrako lan gehien egiten zuten hiru ekoiztetxeen kontratazio bolumena murriztu nahi zuen, gehiegizko kontzentrazioaren arriskuak saiheste aldera. Batetik, ekoiztetxe horiek erosoegi sentituta, lan kaxkarragoa eta garestiagoa egitea; eta aldi berean, beste batzuek baztertuta ikustea euren burua. EITBko zuzendariak ez zuen izenik aipatu, baina aurreko zuzendaritzarekin lan gehien egin duten ekoiztetxeen izena ondo ezaguna da, batik bat ETBk berak jakinarazi zituelako Gasteizko Legebiltzarrean bertan, 2008ko urtarrilean: 3Koma, Baleuko, Pausoka, K-2000, Orio Produksioak eta Hostoil (Globomedia espainiarraren euskal adarra). Sei enpresa horietako hiruk, Surioren esanetan, ETBk azpi-kontratazioetan gastatutako aurrekontuaren %62a eramane zuten 2008an.

**tradEBi**  
EB Traducciones Itzulpenak, S. L.  
[www.tradEBi.com](http://www.tradEBi.com)



### Ideologiak agintzen du telebista publikoan?

Azken urtean programazioan izandako aldaketek aipatutakoen fakturazioari eragin diote batez ere —kasu batzuetan oso nabarmen—, beste batzuetan gizendu duten hein berean. EAJtik kritikatu izan da aldaketaren helburu bakarra dela PSErengandik gertu dauden ekoiztetxei mesede egitea. Ildo berean mintzatu zaigu, *off the record*, aipatutako ekoiztetxe horietako baten arduraduna: “Euren hurbilekoak ipini dituzte, eta abertzaleak zigortu, EAJkoak izan ala ez. Plantamendua ideologikoa da”.

EITBko iturriek adierazi digutenez, “hori ez da inondik inora horrela, ez dago bazterketa ideologikorik; ekoiztetxe guztiek daukate lekua aurkezten duten produktuen kalitatearen arabera”. Alberto Suriok azarotan egindako agerraldiaren ildo beretik, aukerak sektore osoari, eta ez bakan batzuei bakarrik, zabaltzearen garrantzia azpimarratzen du EITBk helarazi digun erantzunak, eta espreski esaten ez badu ere, aditzera ematen du ea bazterketa ideologikoa aurreko zuzendaritzak egiten zuena ez ote zen. “Eskaintzen dugun programazioak gizartearen isla izan behar du eta gizartea anitza da”. Irizpide ideologiko hutsen arabera mugitzen ez diren adibide gisa, gogorarazten dute Iparraldean aurreko zuzendaritzarekin baino informazio gehiago eta euskarazko programazio zabalagoa ematen dela orain —igandero *Iparraldearen Orena Astekaria* saio

berria estreinatu dute—, batzuek Iparraldeko informazioa desagertuko zela iragarri zuten arren. Horren aurrean, zenbaitek susmatzen du Baionako egoitza kolokan egon zenean egindako protestek bultzatu zutela EITB Iparraldeari behar duen arreta ematera.

### Kalitatean dago gakoa

Kalitatea aipatu du EITBk, eta izan ere, alde horretatik dator gehienbat gorago aipaturiko ekoizle anonimoaren salaketa. Harentzat, izan ere, ez da kritikagarria ETBko zuzendaritzak ekoiztetxe batzuei lana kendu eta beste batzuei eman izana. Kritikagarria dena aldaketa hori egitean kalitate irizpide-

rik gabe jokatu izana da.

“Ekoiztetxe guztiei ateak zabalduko dizkietela esatea hitz egiteko era bat da. Arrapaladan sartu dira, dena aldatu nahian, lehendik zeuden egitura guztiak deuseztatuz”. Okerrena, mintzakide beraren ustez, egitura horien ordeztu beste batzuk jarri ez izana da, edo onenean, jarritakoak ahulegiak izatea. Hitz bakunagoz esanda: ekoiztetxe askok, orain, ez dakite nora jo ETBren harremanean jartzeko, eta lehengo zuzendaritzarekin, dena perfektua ez bazen ere, komunikazio-kanalak zeintzuk ziren argi zegoen behintzat.

Audientzien lege zorrotzari soilik erreparatuta, garbi dago Surioren apustua porrot egiten ari dela. EAJ oposizioa izateari tamaina hartzen ari zaio, eta haren oihartzun den Noticias taldeko hedabideek ez dute astebete pasatzen uzten EITBren flotazio marrara torpedoren bat jaurti gabe. “Surioren telebista digitu bakarrekoa da”, zioen euren egunkarietako batzuetan otsailean argitaratutako izenburu batek, ETBren saio berri enblematikoenetako batzuk —*Uyyyyy!* eta *Euskadi Directo*, hain zuzen— %10eko audientziara ez direla iristen adierazteko. Ikur bihurtu den beste batek —txarrerako, esan beharko—, Antxon Urrusoloren *Aspaldikok*, ozta-ozta gaingitzen du kopuru hori, albiste berean esaten zenez. Hirurak ere urte askoan ETBrentzat lanik egin ez duten ekoiztetxeek egindakoak.

### Audientziak beherantz

Otsailetik hona gauzek ez dute hobera egin: ikusle kopuruek maldan behera segitzen dute. Eusko Jaurlaritzak, dagoeneko, ezin dio eutsi Blanca Urgell Kultura Sailburuak iazko azaroan emandako argudioari: “Audientzia beherakada aurreko lantaldeak utzitako oinordetza da”. Datu hotzek diote ETBk estreinatu dituen saio gehienek aurretik ordutegi berean zeudenek baino emaitza txarragoak lortu dituztela. Akats galanta litzateke, nolanahi, arrakasta eta porrota audientziaren arabera bakarrik neurtea, are gehiago zerbitzu publikoa eman behar duen kate batean; ezagun da kalitatea eta atxikimendua, telebistan, ez doazela beti elkarrekin. Hau idazten duenaren iritzia da, alabaina, zeharo ulergarria dela azken hilabeteetan ETBk harrabots handiz iragarri dituen saio gehienetatik ikusleek ihes egitea. Telebista kritikari askorekin partekatutako iritzia da.

“Zalantzarik gabe, urte batetik hona EITB guztien ahotan dago”, adierazi digute telebista honetako ordezkariak, “telebistaren panorama aldatzen ari da etengabe. LTDaren sorrerak iraultza eragin du, telebista tarta zati ugaritan banatzen da eta ez dira garai samurrak. Argi dago, gainera, kinka ekonomikoak eragina izango duela programazioan eta horrek ere ekarriko dituela, nola ez, murrizketak. Datorren ikasturteko programazioa ez dago taxututa, baina batzuek, jada, jakintzat ematen duten honako programa honek edo beste hark ez dutela jarraituko. Horrela lan egitea eta nahi ditugun ekimen eta asmoak aurrera ateratzea ez da erraza”.

ETBren lemazainak ez dira audientzia datuei bizkarra emanez bizi, bistan dena. Mugitu, mugitzen hasi dira, eta iragarritako lehen neurriek ETB1-ek galdutako ikus-

**Kalitatezko programak sortzeko  
gai diren kontuan hartu gabe,  
ideologikoki hurbileko  
ekoiztetxeei aukera ematea  
leporatzen zaio ETBri**

leak berreskuratzea izango dute xede. Joseba Arruti Radio Euskadiko zuzendariak koordinatutako lantaldearen txostena oinarri, lehen telebista-katea epe ertainean suspertzeko urratsak emango direla esan du EITBk. Apusturik sendoena lauzpabost ordu iraungo duen eta lanegunetan emango den magazina da. Lauzpabost ordu... Errapeen metafora datorkigu gogora osterare.

*Aspaldiko* aipatu dugunez gero, ez da alferrekoa izango gorago aurkeztu dugun ekoizle anonimoaren hitzak berriro ekartzea gogora, haren ustez Urrusoloren saioarekin gertatutakoak ederto islatzen duela ETBn ematen ari den aldaketa, eta ez ordezkatu duen programa (*Pásalo*) baino askoz aniztasun ideologiko txikiagoa edukitzeagatik bakarrik. “Norbaitek esan dezake Urrusolo bere pentsaeragatik eduki duela baztertuta ETBk. Baliteke, baina orduan, non egon da urte hauetan guztietan? Profesional ona bada, nolatan ez du inon lanik egin hain denbora luzean?”. Horri gehitu behar zaio aurtengo abendura arteko kontratua daukala sinatuta Urrusoloren ekoiztetxeak, Sirimirik. “Lehenengo zuzendaritzarekin, baldintza batzuk ezartzen ziren: hiru emanaldi eta gero audientziak oso txarrak baziren, kontratua berrikusten zen. Gerta zitekeen saioak aurrera jarraitzea –ETB publikoa da, azken batean–, baina gerta zitekeen ezetz”. Kritika harago doa: “Oro har, ETBko zuzendaritza berria osatzen duen jendeak eskarmentu gutxi dauka halako lanetan. Eta hori emaitzetan islatzen da”. Telebista mundua hurbiletik ezagutzen duen batek baino gehiagok –hain hurbil, euren izena hemen agertzea ez zaiela komeni– agertu digu uste bera. Honi buruz ez digu ezer erantzun EITBk. ■

# «Euskara desagertuko balitz, ‘Euskal Herri ohia’ izango genuke»

Urte askoan jardun du lanean, Etika irakasle Deustuko unibertsitatean. Euskaraz idatziak ditu lau liburu mardul eta sendo, Nietzsche eta enparauak aztergai harturik. Berrikitan, Gotzon anaia zuenaren omenezko ekitaldietan agertu izan da, familiaren izenean beti.

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Dani Blanco

**ARGIA** dugu orain, *Zeruko Argia* garai batean. Urteak dira azkenekoz abadearen bereizgarri lepoko zuri hori aldizkarian ikusi genuena...

ARGIA agertzen zen erlijiotasuna ezkutatu egin da gaur egun. Baina gure komunitatean bertan, Deustun, baliteke lepoko zuria eramaten bakarra izatea ni. Lepoko zuri hau gure janzkera herriari egokitzeko asmotan ezarri zen, baina askotan esaten dut lagunartean —eta nire anaia Anjelmari Gotzoni ere esaten nion—, horrekin ez dugula ezer aurreratu herriari egokitzen. Behin, kenduko ote nuen ere esan zidaten, Madrilen, Nietzcheren inguruan hitzaldi egitera joan nintzen batean. Ekitaldiaren antolatzaileak: “Aizu, lepoko hori kentzea... Hemen, izan ere, ateok ere bilduko dira eta”. Nik, “O, atoei ez die batere kalterik egingo lepoko zuri hau ikusteak”. Jendartean zen Fernando Savater, esaterako, egin zidan galderaren bat Nietzcheren gainean, eta aurrera! Kalean noala, berriz, batzuetan etortzen zaizkit: “Aita!”. Noiz edo noiz, irain eta mehatxuak jasotzea ere gertatu zait, Bilbon bertan, eta inork tu egin ere bai! Fanatikoak leku guztietan! “Kristau al zera? Bai, jauna, kristaua naiz Jaungoikoari eskerrak” [kantuan eman du], esaten nuen nik umetan, eta irain, mehatxu eta gainerakoak eramatea ez zait batere kostatzen.

**Erljiotasuna ezkutatu egin dela esan duzu arestian.**

Europar bai, ezkutatu egin da. Aurrera goazela-eta, ilustrazioa dela-eta... kristautasunaren kontrako giroa zabaldu da, Eliza beraren kontrakoa. Nabarmena da hori. Eliza aipa-

tzeak etsaigoa dakar, askotan. Elizari egiten zaizkion salaketak arrazoizkoak dira batzuetan, baina beste batzuetan, aldiz, kalumnia hutsa. Pederastia dela-eta, zenbat istilu izan dudarik hainbat lagunekin, halako eta halakoren kontrako akusazioak tarteko direla. Asko zain-zain daude, nondik Elizari erasko. Roman pederastia kasuren batean nahasita egon dela jakin eta adurretan lirakeke, pozak zorutzen!

**“Kristau al zera? Bai, jauna, kristaua naiz Jaungoikoari eskerrak”, esan, kantatu duzu, umetan bezala...**

Txikitan euskaraz ikasi genuen doktrina. 5-6 urte izango nituen doktrinan hasi nintzenean. Euskaraz ari ginen denok. Sartu ziren nazionalak herrian eta gaztelaniaz ikastera behartu gintuzten! Hirurogeita bi neska-mutiko ginen komunio handia egitekoak. Denok ari ginen euskaraz, bi ezik. Portugesak ziren, Da Silva, tximista baino bihurriagoak, baina jatorrak. Anjelmari Gotzon nire anaiak esaten zuena, “askoz hobeto gaude orain orduan baino”. Nik bestela esango nioke. “Ez, Anjelmari

## Nortasun agiria

Roman Garate Goiartzun (Elgoibar, 1925) jesulaguna. Irakaslea. Lanaren antropologia, *Nietzscheren ingurua*, *Etika*. *Sarrera*. *Ez-ta-Bai-dan*, *Etika eta askatasuna*... ditu lanetarik batzuk. Unamunoren filosofiak aski gihar ez eta jo zuen Nietzsche aztertzeraz doktorego lanean. Azterbide horretan iraun du beti, Etika irakasgai harturik. Aspaldi erretiraturik, bateko eta besteko gaixoei bisitak egiten, mezak esaten eta gisako lanetan ematen du eguna, eginkizunetan beti. Bizkaiko Diputazioaren Urrezko Luma jaso zuen 1999an, Gotzon anaiarekin batera.



Roman Garate



## Jenaro (I)

“Nire liburuen eskaintzan beti hartu ohi ditut gogoan gurasoak, maitasun handia eman zidatenak. Eta gurasoekin batera, Jenaro anaia aipatu izan dut. Bera izan dut lagunik handiena. Bihotzez maite ditut anaia-arreba denak, baina Jenaro izan dut beti maiteena. Gainera, maitasun batek ez du beste bat galarazten”.

maitea, ez. Zu euskararen kontrako giroa puri-purian zegoenean jaio zinen, hori da zuk bizi izan zenuena, baina zu baino bederatzire urte eta erdi zaharrago naizen honek bestela bizi eta ikusi izan nituen gauzak gerra aurrean”. Guri, euskaraz hazi ginenoi, egun batetik bestera euskaraz hitz egitea bekatu zela esan ziguten, gaztelaniaz ikastera bortxatu gintuzten. Giroak erabat erdaraz hitz egiten jarri zituen emakumezkoak. Ez ziren gu baino makalagoak, baina horretara behartu zituen giro petral hark.

**Zaila izango zen, bada, egun batetik bestera gaztelaniaz hastea...**

Zaila? Zailagorik bada hamaika. Zenbat aldiz entzun ote dut: “Gerra jasan dugunok, hau eta hura... traumatizatuta gaudel”. Traumatizatuta? Zazpi hilabetez bonbardatu zuten Elgoibar, egunero. Hegazkinak ziren batetik, kanoiak bestetik. Nazionalak sartu ziren Elgoibarren, gorriak ziren nagusi Eibarren. Guk, umeok, jolas egiten genuen, zernahirekin. Badut lagun bat, eibartarra, institutu sarrera egin genuen biok, gerra *inzipila* leheritu bezperan. Noizean behin elkartzen gara oraindik, eta gerran ikusitakoak ez digu apetitua galarazi, ezta umorea eta argitasuna ere. “*Quidquid recipitur, ad modum recipientis recipitur*”. Kristo aurreko esaera da: “Hartzen dena, ontziaren arabera hartzen da”. Euri zaparrada ari baldin badu, jar ezazu ontzi zabal bat, eta euri-ur guztia bilduko du. Aldiz, jar ezazu tutu estu bat eta ezin izango du ur guztia irentsi. Horretan nago ni. Sufritu ere egin genuen, negar ere bai, etxeko edo auzokoren bat hiltzen zenean, edo hankamotz geratzen zenean, bai, baina jolas egiten genuen, bonba eta metrailarekin ere jolas! Egunero ditugun ondoezak kontuan hartzen hasiko bagina, momentuan bertan hilko ginateke.

**Esan duzunez, Gotzonek “orain askoz hobeto gaudel” zioenean, ez zegoen zuzen.**

Berak ez zekien! Nik 11 urte nituen gerra sartu zenean. Berak 2. Ez zuen aurrekorik ezagutu. Berak oraingoa ikusten zuen: ikastolak, aldizkariak, zuek bezalakoak jo eta ke euskararen aldeko lanean... Baina aurreko egoera hura ez zuen bizi izan, orduko herria, Elgoibar... Zein da, euskarari dagokionez, Euskal Herriak duen arazoa? Herriak ez duela euskaraz hitz egiten. Eta, hain zuzen, horixe da euskararen egoeraren termometro-rik onena. Bai, euskara ikastoletan, unibertsitatean... baina, kalean? Kalean, orain dela hamar urte baino gehiago egiten al da euskaraz? Ez dut uste. Hori da gure arazoa, herriak zenbateraino egiten duen euskaraz.

Euskaraz hazi zinen, hala etxean nola Elgoi-barko kalean, gerra sartu arte behintzat, baina gaztelaniaz egin zenituen ikasketa nagusi guztiak.

Jakina, eta euskararen kontrako giro betean. Nobiziatua Loiolan egiten genuen jesuitok. Han, nire anaia Jenaro eta biok batera geunden. Euskaraz hitz egiteko ere, baimena eskatu behar izan genion aita Intxaurrandietari. Abertzalea zen, oso, eta baietz. Baina bestela, giroa ez zen batere aldekoa. Anjelmari Gotzonek, esaterako, Filosofia bukatu eta Magisteritza egiteko destinoa aukeratzekoan, Donostia jo zuen begiz. “Zergatik Donostia?”, gure aita probintzialak. Eta Gotzonek —oso aingeru zen gauza askotarako—, “euskara jorrazteko lekuri egokiena dela uste dut”. “Ederki. Zaragozara!”. Urrutien zegoen ikastetxera! Hori zen gure giroa.

### Eta Oñan?

Oñan? Oña, hasteko, Burgosen da, ondo dakizunez. Euskararen arrastorik ez zegoen han. Ibiñagabeitia eta horiek gu baino askoz lehenagokoak izan ziren. Hala ere, Oñan zer edo zer hasi ginen euskaraz halako batean, eta azpeitiarra zen buruetako bat: Patxi Altuna “Kanpaxa”. Gainerakoan, ezta arrastorik ere. Euskara gaizki ikusita zegoen.

### Innsbrucken egin zenituen Teologia ikasketak.

Halaxe bidaltzen gintuzten kanpora gure agintariak. Teologia egitera, atzerrira joaten ginen, Alemaniara edo Austriara, gehienetan. Ikasketetan erraz xamar genbiltzanok aukeratzin gintuzten harako. Ni, Innsbruckera, pozik. Urte zoragarriak eman nituen han: herria, paisaia, jendea... alemana bera ere erraza egin zitzaidan. Bizian egin dudana hitzaldirik luzeena ere hantxe egin nuen, Tirolen, alemanez. Ordu eta erdikoa izan behar zela esan zidaten, eta halaxe egin nuen. Euskaraz edo gaztelaniaz bezain ondo egiten nuen orduan alemanez. Innsbruck! “Ibai gai-

## Jenaro (II)

“Gure familian, pentsamendu mailan indartsuena, Jenaro dugu, askozaz. *Gizakia maitagogo da haren liburua irakurri duzu? Han agertzen du bere filosofia. Gotzonek egin zuen lana ez du Jenarok egin, hark idatzi zuen liburu pila, alegia. Gizakia maitagogo da liburuari sarrera egin nion eta han idatzi nuen, nola filosofia ikasten hasi ginenean aldendu zen Jenaro kristautasunetik, sinesmenetik; nola filosofia ikasten hasi beharrean, filosofia egiten, sortzen hasi zen. Kapaza baino kapazagoa zen, eta halaxe aitortzen zuten haren lagunek ez ezik, baita irakasleek ere”.*

neko zubia” esan nahi du. Neguan, ibaia behean zetorren. Udaberrian, mendiko elur eta izotzak urtzen zirenean, gora eta gora. Zoragarria.

### Nietzscheren ingurukoa duzu doktorego lana.

Erroman egin nuen tesia. Norberak aukeratzin zuen gaia. Irakasleetako bat egoskortuta zegoen nik Unamunori buruz egin nezan ikerketa. Irakurri nuen Unamuno. Asko gustatzen zait, literaturan. Baina filosofia mailan ez zeukan niri gustatzen zaidan giharra. Eta Nietzsche bururatu zitzaidan, Friedrich Nietzsche! Esatea ere! Beldurgarria zen haren izena aipatzea. Eta aita probintzialari esan nionean, “errezatu, kontuz!”... Eta Nietzsche osorik irakurri nuen, behin eta berriz, eta berari buruz egin nuen doktorego tesia. Hari buruzko azken liburua, berriz, *Nietzscheren inguruan: Gizakia (duintasuna) – Jaungoikoa*, duela hamar urte argitaratu nuen. Argentinan ere izan naiz Nietzscheri buruzko ikastaroak ematen. Nietzsche, fenomeno bat da, artista hutsa. Goethe, Lutero eta Nietzsche, horiek dira hiru buruak alemanez.

### Etika katedraduna zara. Zein lotura egin duzu Nietzscheren eta etikaren artean?

Nietzscheren iritziz, etika, morala da deabrua, etsaia. Hortik dator ustelkeria guztia, haren iritziz. Egin zitekeen iraultzarik okerre-na egin zuen Kristok. Munduaren historian kriminal bat dago: Kristo. Hala esaten du Nietzschek, greziarren balioen guztiak itzulipurdikatu zituela Kristok, edertasuna eta beste. *Nietzsche, su filosofía y su tragedia en torno del bien y del mal*. Horixe izan zen nire tesiaren izenburua, gaztelaniaz idatzi dudana liburu bakarra. Erreboluzio txiki bat izan zen liburua, orduan inork ez zuen hartaz ikerketarik egiten-eta. 2.000 ale atera zituzten, eta erroskilak bezala saldu ziren. Ongia eta txarkia, Nietzscheren iritziz hor datza munduaren ustelkeria. Kristok ezarri zituen ongia eta

# GUIKURI

nekazal etxea



Guikuri, 1 • 01138 Murua (Araba)  
T 945 464084 / 615782323  
guikuri@euskalnet.net  
www.guikuri.com




txarkia, eta horren etsaia da Nietzsche.

Hortik datoz harrezkero idatziak dituzun etikari buruzko lanak, Etika. Sarrera, Ez-ta-Bai-dan eta Etika eta askatasuna.

Askatasuna ipuin bat da! Kontu zahar bat. Esklabook asmatutako ipuina. Lehoiak ez du askatasunik. Lehoiari zera dagokio, parean fortunatzen zaion bildotsa irenstea. Joan eta esan biezaio bildotsak lehoiari: “Baina berdinak gara”. Baita zera ere, berdinak!

**Zuk kontra egiten diozu Nietzsche-ri?**

Nietzsche izan da nazistei funtsa eman dien filosofoa. 16 urte nituenean edo, britainiar kontsulatuari idatzi nion, Bigarren Mundu Gerra garaia zenean, aliatuen aldeko propagandarik hemen eskuratzetik ez zegoela esanez. Ez zidaten erantzun. Amerikar kontsulatura idatzi, eta astero bidaltzen hasi zitzaizkidan propaganda zoragarria. Aliatuen aldekoa. Izan ere, Hitlerren harrokeria, zorakeria... Ijitoak, beltzak, juduak, gaixoak... denak garbitu zituzten. Espainian, Mundu Gerra denboran, %80 Hitlerren alde zegoela esango nuke. Propaganda ikaragarria zen. Horrek giroa sortzen du, eta giroaren indarra izugarria da. Eman dezagun Franco. Zerua ilundu eta harria egiten bazuen, Loiolan piperrak txikitzen bazituen, batzuen iritzirako Franco zen erruduna. Ez, hori ere ez. Bakoitzari eman diezaiogun berea. Baina hori oso zaila da.

**Non ikasi duzu horrela pentsatzen? Hori ez dator liburuetan.**

Hizkuntzak berak ere filosofia bat darama bere baitan, ikuspegi jakin bat. Besterik da norberak nola baliatzen duen. Nanoak gara erraldoi baten bizkarrean. Bakoitzak egiten du bere antzera. *“Quidquid recipitur, ad modum recipientis recipitur”*.

## Garatetar maitasuna

“Nik ez dakit maitagarri garen, baina maitatzaileak bai, behintzat. Hori, gurasoen maitasunetik datorkigu. Haiek sartu ziguten barruan. Edozein arazo eta egoeraren aurrean, maitasuna zen haien erantzuna, hitzez eta egitez. Aitak sartu zuen gurean kristau bizitza sakona. Inoiz ez nion maldizio hitz bat entzun. Beti zen baikorra, eta beti maitasuna. Barruraino sartu zaigu. Hizkuntza bezala. Arnasa dugu, bihotz taupada”.

## AZKEN HITZA

### Argazkilari

“Loiolan ikasten ari nintzenean, komunitateko fotografo izendatu ninduten. 300 lagun ere izango ginen han. Esan ere egin zidaten, oso erretratu ederrak zirela nireak. Bi kamera nituen. Loiolako garaia bukatu eta esan nion neure buruari: ‘Roman, zer egin behar duk hik bi aparatu hauekin! Horiakin segitzen baduk, diru asko gastatu behar duk, ze erretratuok egin eta zabaldu egingo dituk gero! Utzi zezenak, moztu moto-tsa!’. Jesuitok, bestalde, pobrezia botoa egiten dugu eta, hortaz, bertan laga nuen fotografia, behin eta betiko”.

**Hizkuntzak filosofia jakin bat daramala bere baitan diozu.**

Bai. Nik lehenengo liburua besterik ez nuen egin gaztelaniaz. Euskararen maitasunak bultzatu ninduen nire lanak euskaraz argitaratzera. Aristotelesek berak ere –“Aristoteles jenioak” dio Marxek *Kapitalen*–, bada, Aristotelesek “hitza daukan animalia” dela dio gizakia: hizkuntza. Hizkuntza mamitzen eta gauzatzen denean, mentalitate osoa gauzatzen da. Mitterrandi ere irakurri nion: “Hizkuntza bat hiltzen denean herri bat hiltzen da”. Ondo esan zuela deritzot. Hizkuntza zeinahi dela ere –berdin zait bretoiara izan, edo Patagoniako bat–, hizkuntza

bat hiltzen denean herri bat hiltzen da. Hizkuntzak ematen dio gizakiari nortasuna. Gizakiz osatzen da herri bat. Delako herri horrek hizkuntza galtzen badu, beste herri bat izango da, ez lehengoa.

### Eta Euskal Herria?

Nire ustez, Euskal Herriak nahitaezko du euskara. Euskal Herria euskaraz mamituta, bihoztuta, argituta eta osatuta dago. Euskal Herria! Besterik ere bada, ordea, eta askotan esaten nien ikasle nituenei. “Nork bere kontzientziaren arabera jokatu behar du. Zuek, gehienok, espainolistak zarete, baina, ez ezazue gaizki hartu: herri honen independentzia nire esku balego, oraintxe bertan ezarriko nuke”. Nik beste guztiak errespetatuta ere. Ulertzen dut askori min egitea ustez beraiena den zati bat kentzea, Euskal Herria, esate baterako. Bestela pentsatzen dutenak errespetatzen nituen, eta errespetatzen ditut, baina, nire iritziz, Euskal Herria euskararekin batera dator, bestela ez da Euskal Herria, beste herri bat baizik. Ez da euskaldunen herria izango. Nik neure herria maite dut, ez diot inori ezer kendu nahi, gurea geureei ematea baino.

**Jaio zinenean Euskal Herria bizi izan zenuen Elgoibarren. Gaur Euskal Herri hori ez dago...**

Ez dago. Erdibituta dago. Nik ez dut ukatzen, hala ere, euskaraz ez dakiten batzuek nik baino maitasun handiagoa izatea Euskal Herriari. Euskara desagertuko balitz, “Euskal Herri ohia” izango genuke. Pentsatzen dudana esaten ari naiz. Ez gara gehiago, ez gutxiago. Gure tasun funtsezkoena euskara da. Ondoren datoz maitasuna eta gainerako tasun guztiak. ■

• Sathyandranath Ragunanan ‘Mac’ Maharaj •


# «Askatasuna ez da zapalduarentzat bakarrik, zapaltzailearentzat ere bada»

“Hasieratik ikusi nuen Mac arazo txiki bat izango zela guretzat kartzelan. Gogorra zen, zaindariei erantzun egiten zien, azkarregia zen, beti punta atera behar, argumentatiboegia, ez zizun puntu batean ere etsiko nahiz eta eztabaida aspalditik irabazia izan. Bere onerako, inteligenteegia zen”.

Mandelaren hitzak dira Maharaj-en *Shades of difference* (Ezberdintasunaren ñabardurak) liburuko hitzaurrean. Pretorian, Presidentzian duen bulegoan hartu gaitu Hegoafrikako gatazkako sinboloetako bat izan den Afrikako Kongresu Nazionaleko (ANC) kide historikoak.

Testua eta argazkiak:

LANDER ARBELAITZ



INDIAR KOMUNITATEKO KIDEA, Hegoafrika-ko Newcastle herrixkan jaio zen Maharaj, 1935eko apirilaren 22an. Gaztetatik ANCn eta Hegoafrikako Alderdi Komunistan ibili zen, gatazka irabaztea helburu. Torturatua, hamabi urte egin zituen kartzelan, eta ondoren urteak egin zituen klandestinitatean. Garraiobideetako Ministro izan zen Mandelaren Gobernuan. Egun, herrialdeko Presidentetzan egiten du lan, Kanpo Harremanetarako aholkularitzan.

**Jaio zinenean, zer espero zezaketen gurasoek zuretzako?**

Meatzarien herri batean jaio nintzen eta azal iluneko biztanleonek aukerak oso mugatuak ziren. Zaila zen pentsatzea indiar bat mediku edo abokatu bilaka zitekeela. Nire anaia zaharagoek eskola utzi zuten doan izateari uzten zion urtean. Eskolan ongi ibili eta adibidez, irakasle izatea izan zitekeen nire gurasoek niretzako espero zezaiketen gauzarik altuenetakoa. Irakasleak komunitatean oso pertsona errespetatuak ziren.

**13 urte zenituen apartheid erregimena indarrean sartu zenean. Momentuan ohartu al zinen aldaketaren tamainaz?**

1948an aldaketa handia izan zen gure bizitzetan. Nahiz eta gure auzoan gehiengoak indiarra zen, baziren afrikarrak eta zenbait zuri txiro ere. Elkarrekin egiten genuen jolas. Baina ume afrikaner zuri horiek gurekin borrokan hasi ziren apartheidaren indarrean sartu zenetik. Gunea utzi zuten, eta erregimenak trenbideetan lana eman zien. Oso nabarmena izan zen beltzen eta zurien arteko banaketa ordutik aurrera.

**Noiz erabaki zenuen zutik jarri eta borrokarako prest zinela?**

1952an gurasoen etxea atzean utzi nuenean, ikastera joan nahi izan nuen unibertsitatara. Beltzok baimen bereziak behar izaten genituen herrialdean bidaiatzeko. Azkenean Durbango Natal unibertsitatean amaitu nuen, eta bertan sortu zitzaizkidan politikarekiko kezka.

**Eta ez al zinen beldur?**

Bi aukera genituen: ez bazenuen ezer egiten eguneroko umiliazioarekin bizi beharko zenuen, eta zure eskubideen alde zutik jartzzen bazinen, arazoak izan zenitzakeen. Bigarren aukerarekin behintzat duintasuna mantentzen zenuen.

**"Bi aukera genituen: ez bazenuen ezer egiten eguneroko umiliazioarekin bizi beharko zenuen, eta zure eskubideen alde zutik jartzzen bazinen, arazoak izan zenitzakeen. Bigarren aukerarekin behintzat, duintasuna mantentzen zenuen"**

**Robben Uharteko espetxera hamabi urterako bidali zintuzten. Gogoratzen al duzu bertan pasa zenuen lehen gaua?**

1965eko urtarrilaren 5ean joan nintzen. Ez nekien nor zegoen sekzioan, denak ordurako beren ziegetan giltzatuta baitzeuden. Bakar-dade-gelan sartu ninduten, eta gau oso hotza izan zen. Gero jakin nuen preso politiko guz-tiak atxilotuta zituzten kartzelan eta Mandela eta beste batzuk zeuden sekzioan nengoela.

**Bizitzako Unibertsitatea izenez ere ezaguna zen kartzela, zuen artean.**

Muga asko zegoen, zer ikas zitekeen eta zer ez. Agintariak zailtasun handiak jartzzen zituzten liburuak lortzeko. Hala ere, pre-soon erabakia izan zen, baimena lortu edo ez, gure buruak heziko genituela. Beraz, hezkuntzaren bat izan zuenak beste eskolak ematen zizkien. Politika, gure gatazkaren historia, marxismoa...

**Nola gida zezakeen Afrikako Kongresu Nazionalak gatazka, lidergoaren parte handi bat kartzelan edukita?**

ANCk biziraun bazuen, nire ustez, atxilotuek Nelson Mandelaren bidea jarraitu genuelako izan zen. Epaiketak erabiltzen genituen erakusteko askatasuna kendu ziguten jendea ginela. Hori inspirazioa izan zen gure jendearentzat. Horrez gain, ANCk jende asko bidali zuen erbestera eta handik borrokatu zuten horiek. Batzuk *Radio Freedom* emititzen hasi ziren herrialdean, ilegalki. Beste batzuk erakunde lana antolatzen bidali zituzten, eta abar. Azkenik, egunkariak irakurtzen zituen gure jendea konturatzen hasi zen mundua gu babesten hasi zela. Gure mina ez zen desagertu, eta babesak bizirik mantendu gintuen.

**Egia al da zuk transkribatu eta kartzelatik atera zenuela Mandelaren *Long walk to freedom* autobiografia?**

Bai, 1976an.

**Nola egin zenuen?**

1975eko abenduan sortu zen ideia, 1976ko urtarrilean hasi zen Mandela idazten eta apirilera-ko kanpora aterea genuen. Karpeta eta liburu azalen barruan konpartimentuak sortu eta barnean ezkutatu, gure ikasketa liburuekin batera ateratzen genituen.

**Behin kartzelatik aterata, Vula Operazioaren ideologia izan zinen.**

1965ean ANC eta gainontzeko alderdiak erbestetik ekitera behartu gintuzten, baina

ezin genuen muga gurutzatu eta bertan geratu, herrialde bizilagunen egoera politikoak medio. Lusakan (Zanbian) genituen baseak, eta jendea Hegoafrikara bidaltzeko, ilegalki gurutzatu behar izaten genituen tarteko herrialdeak. 1976an Sowetoko ikasleen altxamendua izan zen eta liderrak sortzen hasi ziren herrialdean. Apartheidaren aurkako jendea gatazkaren garaipenera nola bideratu? Gure lana indar hauek guztiak batu eta herrialdean lidergo bat sortzea zen. Horregatik, sabotajeak egitera bidaltzen genuen jendeaz aparte, liderrak bidali behar genituen barnera, bertako liderrekin harremanetan jarztera. Hori zen Vula Operazioaren helburua, adar politiko eta militarra gidatuko zituen lidergoa osatzea.

**Ongi funtzionatu zuen, alderdiak legeztatu eta Mandela askatu bitartean. Nola gogoratzen duzu Mandela askatu zuten eguna?**

Denontzat egun ikaragarria izan zen, Mandela kartzelan 27 urtez izan baitzen. Alde batetik inspirazioa zen hainbeste urte kartzelan egin ostean, tinko biziraun zuela ikustea, inspiragarria erabat. Nazioarteko apartheidaren aurkako mugimenduek ere garaipen bat lortu zutela ikusi zuten, eta animoak indartu ziren borrokan jarraitzeko. Une oso konplexu batzuetan sartzen ari ginela bagenekien, baina arrakasta izateko aukerak genituela ikusten genuen.

**“Zenbat eta luzeagoa guda, orduan eta gehiago kostatzen da estrategia aldatzea”, esan zuten Donostian, Garak antolatutako *Insurgentziazatik demokraziara* hitzaldian. 1990eko abuztuan ANCK borroka armatua amaitzea erabaki zuen. Zergatik?**

Mandela askatu ostean, lehen aldiz ANCren eta gobernuaren arteko bilera ofizialak hasi ziren. Presoen kaleratzeaz, erbesteratuen etxeratzeaz eta abar eztabaidatzen genuen. ANCKo Komisio Exekutibo Nazionala bildu eta apartheidaren gobernuarekin izango genuen bilerara zein jarrerarekin azaldu eztabaidatu genuen. Erabaki genuen hurrengo bileran arerioa ezustean harrapatzea, borroka armatuaren suspentsioa mahai gainean jarri. Inongo baldintzarik ez genuen jarri. Horrek, munduaren eta gure jendearen aurrean jarrera indartsua lortzea ahalbidetzen zigun, eta apartheidaren gobernuari presioa ikaragarria jarriko zion, pausoren bat eman zezan. Mugimendu taktikoa izan zen negoziazioak serio har zitzaten. Jokaldi ona izan zen, azaroan negoziazioak hasi baitziren.


**Nor da Mandela?**

Mundu osoko gatazka guztietan, askatasuna lortzeko borroka gizabanako batzuk lider

bilakatu ditu, ezaugarri jakin batzuk dituztela. Osotasuna mantentzen dute, gauzak garbi ikusten dituzte, gatazkarekin leialak dira eta ez dute etsitzen. Beren idealak defendatuz jendearen zerbitzura egoteagatik errepresioak sortutako min handia pairatzen dute. Mandela horietako bat izan da. Bere ekintzak, gure jendearen irudimena harrapatzeaz gain, inspirazio izan dira. Munduak apartheidaren preso guztiak irudikatzeko sinbolo gisa erabili zuen, eta identifika zezaketen irudi horretan oinarrituz, preso politiko guztien askatasuna eskatu zuen.

**Negoiazio formalak hasi zenituztenean, bakea lortzeko euren asmoak zintzoak zirela sinetsi zenuen?**

Batzuek diote konfiantza elementu garrantzitsua dela negoziatzeko orduan. Ni prozesuko idazkari izendatu ninduten, eta esperientziaz diot, konfiantza ez zela elementu garrantzitsua izan. Herriaren interesak babestera zoaz hara eta erabakiak hartu behar dituzu. Nego-



ziazio bidez, arrakasta lortzea da helburua. Konfiantza ez zen hasieratik hor izan, pixkanaka sortzen joan zen adostasunetara heltzen joan ginen neurrian. Baina ez dut uste apartheid erregimenean sekula konfiantza izatera heldu nintzenik. Kide batzuk errespetatzera bai, baina nire baitan, isilean, ez nuen sekula alboratu euren interesak nolabait mantendu nahi izango zituztela. Normala da. Ez dut jendea egun batetik bestera aldatzea espero, euren pribilegio guztiei uko eginez.

**Negoiazioak aurrera zihoazen neurrian, zenbaterainoko mehatxua ziren ultra-eskuindar zuriak?**

Arazo serioa. Herrialdea eskura izan zuten, baina Mandelaren eta gure lidergoaren abilezia izan zen beren xantaian ez erortzea. Neutralizatu egin genituen. Erabaki zuzenak hartu genituen eta 1994ko hauteskundeak heldu zirenean, jende guztia harrituta geratu zen oso baketsuak izan zirelako. Ondorioa: beti egongo da aldaketa saihestu nahi duen indarren bat. Bere burua etorkizunaren arkitecto ikusten duen mugimendu politikoaren erantzukizuna da helburuen bidea eginez, beste aldea zatitu eta ahultzea. Ez indarrez, baizik eta logikaren eta erabakien bitartez.

**“Ez gaitu mendekuak gidatu behar”, zure esaldia da. Beltzen komunitateak nola barkatu horrenbeste urtetako sufrimendua?**

Barkamena ez da erlijioaren zentzu hertsian hartu behar. Mendekuak motibatzen bazaitu, askatasunaren alde egiten ari zinen bidea atzean uzten ari zara. Ahaztu egin duzu gatazkan zure herria bizitza hobe batera eramateko sartu zinela. Apartheida babestu zuen jendearen sufrimendurik handiena, Hegoafrika ez-arrazista eta demokratikoan bizitzen ikastea izan da. Beren pentsamendu eta balore guztiak hankaz gora jarri baititugu. Garai hartan mendekua hautatu izan bagenu, zurien aldaketa prozesua zaildu besterik ez genuen egingo. Nahita hartutako erabaki politikoa izan zen, momentuko eskaerak betetzen zituen estrategia.

**Txaboletan bizi den jende asko engainatuta sentituko da zuekin...**

Ziur naiz, lanik gabe, txaboletan era miserablean bizi den jendeak engainatuta sentitzen den egunak dituela, eta bidezkoa da gainera. Baina jende bera optimista sentituko da beste hainbatetan. Adibidez, orain hiru aste Zuma presidentea, hedabideekin batera, pobrezia handiko eremu bat bisitatzen izan zen eta erabat harrituta geratu zen bertan ikusitako miseria gorriarekin. Atzo bueltan joan zen gobernuaren eta zenbait alderdi pribaturen

## Tortura

**“Tortura ezin da sekula justifikatu. Torturatua deshumanizatzen du, torturatzailea deshumanizatzen duen bezala. Bi aldeetan egon naiz. Alde batetik, ni torturatu egin ninduten, eta bestetik, esan izan dut: ‘Tipo honi informazio hau aterako banio mila bizitza salbatuko nituzke!’. Baina gauzek ez dute horrela funtzionatzen. Torturak ez dizu informazio fidagarria ematen, eta zure humanitatea pikutara bidaltzen du. Egunen batean, tortura ilegal ez, erabilezin egingo duen mundu baten esperantza naiz. Giza jokabidearen aurka doa”.**

babesa mobilizatuta, eta etxe batzuk eraikitzen hasi ziren. Argazkiak ikusten badituzu, “bizitzak ez du esperantzarik” zioen jende bera esperantzaz beteta ikusiko duzu. Esperantza ez galtzea da kontua, arazo hauek ezin baitira egun batetik bestera konpondu. Baina lanean jarraitu behar dugu eurak laguntzeko gaudela gogorarazteko. ANCK bere sorrerako ideiak bultzatzen baditu, egindako akatsak zuzentzen baditu, herrian esperantza sortzeko gai izango da.

**Uste al duzu herritar zuriak konturatzen direla hegoafrikar beltzek hartu duten jarrerarekin zelako zortea izan duten?**

Bai eta ez. Askatasuna ez da zapalduarentzat bakarrik, zapaltzailearentzat ere bada. Baina zapaltzailearentzat, gainontzekoak zapalduz izan dituen pribilegioen ostean, askatasunak egin dion ekarpenaz konturatzea zaila da. Eurek egindakoaren ondorioen erantzukizuna onartu eta esan behar lukete: “Egin dezagun lan denok batera hau konpontzeko”. Geroz eta zuri gehiagori erakutsi behar diegu beltzekin batera bidea eginez, Hegoafrikako seme-alaba guztientzat etorkizun hobea erai-kiko dugula, berenak barne.

**Hamasei urte dira demokrazia ezarri zenutela. Pozik zaude herrialdearen bilakaerarekin?**

Independentzia osteko hamasei urteetan beste edozein herrik baino askoz ere lorpen gehiago egin dugu. Baina akats ikaragarriak ere egin ditugu eta hauetatik azkarrago ikasiko bagenu, hobe geundekete. 1994ak gure jendeari ekarri zion itxaropenak hazten jarraitzen du, dena den. Pobrezia munduko kontua dela pixkana ulertzen hasi den mundu batean bizi gara. Pobrezia da herrialde baten desorekarako iturri nagusia eta munduak badu nahikoa baliabide pobreziarekin amaitzeko. Denok batera lan egingo bagenu, ez Hegoafrika soilik, mundu osoa hobetuko genuke. Hegoafrikak erakutsi du pobrezia sortutako gatazka hauek elkarrizketa eta negoziazio bidez konpon daitezkeela. Munduak gauza bera egin behar du.

**Beste gatazka batzuetarako erabilgarri izan litekeen leziorik ikasiko zenuen urte hauetan...**

Gizabanakoaren askatasuna benetan gauza preziatua dela. Mundu osoan, askatasuna ukatu zaion pertsona zutik jarri da. Pertsona bakoitzari, bere bizitza erabaki eta moldatzeko aukera ematea da demokrazia. Gizartean beti izango dira gatazka sortzen duten interesak. Demokrazia da giroa ahalbidezte, gatazkan dauden interes horiek gudan amaitu gabe konpontzeko, elkar hil gabe. Humanoago egiten gaituen pauso bat aurrera eman behar dugu. ■



# *Jaso euskal kultura egunero 10 albistetan*



*Harpidetza doan e-postaz  
Dagoeneko 2.500 harpidedun*

*hari@*

*euskal kulturaren buletinak 10 urte*

*Harpidetu zaitez:*

*[www.argia.com/harpidetza\\_haria.php](http://www.argia.com/harpidetza_haria.php)*

 **argia.com**



## I need Euskadi

U

dako opor aurreko azken ttakunkada honetan ezin udari, turismoari edo udatiarrei buruzko iruzkinik egin gabe gelditu.

DANI BLANCO



Ana Urkiza



Padrón



Rozas

Uda hasieran Euskadiko turismoa sustatzeko hitzartu den leloa belarri batetik besterako bidean oraindik dinbidanbeka dabilkidan artean, uni-bertsitatean ikasten jardun nueneko garaia etorri zait burura. Bilbon urte batzuk generamatzala, jada, uda hartan urtero bezala, pisu bila hasi ginen, ikasturte berrian nora joana izateko. Pisukide berri bat ere hartu genuen hartakoan. Eta lagun berriak gidatu gintuen berak nahi zuen lekura —horretaz ondotik konturatu ginen arren—: auzo on batean nahi zuen pisua, etxebizitza berrian. Gai-nontzekoa, berdin zitzaion. “Kaskara” berria alokatzeko gerrikoak estutu behar izan genituen, lasterrera konturatzeko, “kaskara”rekin nahikoa zuela gure lagun berriak. Izan ere, ikasturte osoan etxera hurbildu ere ez baitzen egin. Erreferentzia zen gure lagunak “erosi” zuena; “deigarria” zatekeen kokagunea; esanahi bat zukeen espazioa. Zertarako? Bere interesak balio bereizgarritz jantzeko.

José Luisek, bere ttakunean, euskaldunon akordiorako, hitzarmenatarako eta adostasunak bateratzeko eta sustatzeko abileziaz hitz egiten zigun, horrek dakarzkien ondorioekin. Euskal Herriaren pluraltasunaren interesen defentsarik eraginkorrenaren alde egiteko daukagun erraztasunaz, alegia. Baina pluraltasuna defendatu nahi horretan, gutxienez, “herri bat” existitzen dela esan liteke. Zeren eta orain, pluraltasuna errespetatu eta, ez hori bakarrik baizik eta pluraltasun horren izaera anitza “normalizatu” nahirik, gure herriko kaleak atzerritarrez

beteko diren garaian, turista horiei Spain behar dutela esan behar diegu. Hau da, Spain dela eskaintzen dieguna. Spain garela.

Gure lagunak erabili egin gintuen. Halako pisu batean bizi zela jakinarazi behar zion bere familiari, eta beste batzuei. Baina ez zitzaion barrukoa ezer axola; ez

etxea, ez etxekook.

Lelo berria asmatu duenak ere, berdinketa bat eginez gero, erreferentzialtasuna izan du helburu. Deigarria dena. Esanahiz jantzi dezakeena. Eta kokapena zabartzen saiatu da. Spain oso baita zabala. Engaiatu egin nahi gaitu, turistak engainatuz.

Gure lagunak engaiamenduaz askotxo zekien. Pisua alokatu bitartean ondo asko azaldu zigun pisukideen arteko adiskidantza garrantziaz, nork bere nortasuna erakutsi eta bizitzeko askatasunaren premiaz, eta abar. Ondo ikasia zuen bai esan beharrekoa, gero, barruan zeramana azaleratzen uzteko.

Eta Eusko Jaurarlitzaren asmoa ere halakoxea. Guztiok bateratzearena. Normalizatzearena. Bakoitzari berea ukatzearena. Hemengo kultura, gastronomia eta natura kontzeptuak gainontzeko hondartza, bero kiskalgarri eta piña-kolaz bateratuz.

Bakoitzari berea. Ez txarragoa, ez hobe.

Pisukideari, erreferentzia hura erabiltzeko ez zuela alokairua ordaindu behar esan genion. Ez gintuela behar. Eta pisua axola zitzaion norbaiti lekua harrapatzen ari zela. Erreferentzia, kokagunea eta izena baziren nahi eta behar zituenak, erabil zitzakeela —lapurreta ez deitzeagatik— baina gurekin kontatu gabe.

Horixe bera! *I need Spain* baino *I need Euskadi* erabiltzea zuzenagoa zukeela. ■



Lelo berria asmatu duenak, berdinketa bat eginez

gero, erreferentzialtasuna izan du helburu.

Deigarria dena. Esanahiz jantzi dezakeena. Eta kokapena zabartzen saiatu da. Spain oso baita zabala.

Engaiatu egin nahi gaitu, turistak engainatuz



# GORA PRO NOBIS

Asisko Urmeneta

le monde 07/10

“Espainiarrek Paul olagarroa erosi egin nahi dute.”

TIRA, TXIPIROI...



Urtzi Urrutikoetxea

KAZETARI ETA IDAZLEA

## Nazio zatiezina

**A**spaldi esan genuen, baina eurek esan dute orain: ez daukagu lekurik Espainian. Eta baietz esaten zigutenak nabarmen geratu dira. Independentziarik gabe ba ei zegoen estatu hau denon aterpe izatea, desberdintasunean baturik, deitu federalismo edo eman beste edozein izen. Eta ideia horretara limurtu zirenek Espainia seduzitu zela zioskuten, baina Espainiak agerian uzten du zer den, aukera duen bakoitzean: futboleak bikain ibilita ere, ezin umiltasun ariketarik egin, ezin aprobetxatu beren selekzioan diharduten katalanak zein euskaldunak integrazio atsegina bultzatzeko, hor ere espainiar sentitzen ez garenak umiliatzera jo behar izan dute, nazionalismo atzerakoi eta narratsena aterata. Egunotan kaleetan gorri-horiak baino ez du izan lekua, Espainiaren beste erdia ei den ikur errepublikar bakar bat ez dut ikusi. Zer esanik ez estatu plurinazionalak izan litzakeen beste nazioetako banderak.

Behinola, une labur batez, egin zuten ahalegina ikurrina eta beren piperpotoa maila berdintsuan agertzen, biak geureak ditugula sinestarazten, baina honezkero horretan ere ez dute galtzen ahaleginik. Garai batean indarkeria barik dena zela posible esaten zuten; gero, hitza hartuko zietela sumatuta ñabardurak etorri ziren,



DANI BLANCO

«  
Zortzi aldiz errepikatu  
dute nazio zatiezina dela,  
eta behin ere ez, zein den  
zatiezintasun horren  
berme. Ez dago esan  
beharrik zertarako  
dagoen armada  
»

prezio politikorik ezin ordaintzea eta abar, eta azkenean, dagoena dagoela eta horretan integratzea besterik ez dugula.

Auzitegi Konstituzionalak argi utzi du: benetako federalismoa Konstituziotik kanpo dago, estatuaren ikuspegi plurinazionala ez dago egikaritzetik. Kataluniako nazioari zentzu juridikoa ematea “bateraezin eta kontraesankorra da Espainiako Nazioaren zatiezintasunarekin”. Ba horixe dago, lagunok: estatutuek eman beharrekoa emanda, eta Konstituzioak egin daitekeenaren mugak argi zehaztuta. Konstituzio hori aldatzeko, espainiarren ordezkarien bi heren behar dira, PSOEk eta PPk oniritzia eman ezean ez dago deus aldatzerik, katalanen ordezkarien ehuneko 85ek adostuta ere.

Eta kartak mahai gainean jarrita, federalistek onartzen dute argudiorik gabe utzi dituztela, eta Konstituzioa aldatzea baino zentzu handiagoa daukala, orain eta hemen, autodeterminazio ariketa zuzena egitea. Euskal Herrian eta Katalanian gatazkaren funtsa hor dago. ETArrik gabe ere, milaka euskaldun eta katalani benetako terrorea ematen diena aurrean duten estatua da. Zortzi aldiz errepikatu dute nazio zatiezina dela, eta behin ere ez, zein den zatiezintasun horren berme. Ez dago esan beharrik zertarako dagoen armada. ■

TXANDAN

Andoni Mujika



Gauza bitxia gertatu zaigu euskaldunoi: enteratu garenerako lehendakari espainol bat daukagu Euskal Herrian. Ez lehendakaria bakarrik; zenbait erakunde eta aginte lekuetan ere espainolak daude makilarekin. Nik ez ditut espainolak gorroto. Gorrotatzen ditut Euskal Herrian espainol direnak, eta gehiago, agintetan badaude. Ikusi nahi ez bada ere, Euskal Herriak inbasio esanguratsu eta bitxia jasan izan du. Aurreko mendeko bigarren zatian, inbaditzaile pobreak iritsi ziren gure herrira neurririk gabe. Jatorrizko euskaldunak politika honetan badaukagu erantzukizunik (gure

## Lehendakari

fabrikak hornitu genituen hauekin eta jokia egin genion Francori). Bestetik, euskal ezkerak ere ez zuen alarma

hori behar zen unean jo eta langile zapalduarekin batera egin zituen hainbat ibilbide. Gehiago esango dut, ez zuen ausardiarik eduki gauza oinarritzkoak bereizteko. Koherentziaren izenean ingenuoa izan zen. Espainol pobre multzoa, dagoeneko, ez da ez hain pobrea, ez pobre soziologikoa ere. Politikoa da. Urgenteena orain, ikuspegi abertzaleetik, batasuna eta inteligentzia dira. Alderdi abertzaleek eskaini behar diote horrenbeste Euskal Herriari. Asmatuko al dute lehentasuna jartzen eta proiektua(k) formulatzen. ■

Alaitz Vives

KAZETARIA

## Izendaezinaz

**I**zendatu ezin dena baden ala ez, Tere Irastortzak, poeta eta saiogile, saiakera liburua osatu zuen hari-mutur horri tiraka (*Izendaezinaz*, Pamiela; 2008). Barkatuko al dit bere lanaren izenburua nire egiten badut, ez Jainkoaz, Jainkorik bada, hausnarketa egiteko, ezintasunaz jarduteko baizik.

Adimen emozionala, emozio-adimena, inteligentzia emozionala... ez dira guretzat hitz arrotzak, modan daudela dirudi, eta bolada baino zerbaite gehiago ere badirela sinetsi nahi nuke. Nork bere emozioak antzeman, landu eta modu egokian bideratzea eta ondokoaren emozioak bere hitz eta jokabideetan antzemateko gaitasuna eskuratzea garrantzitsua iruditzen zait.

Neurozientzia giza burmuina ezagutzeko ahaleginean pauso bizkorrak ematen ari da; zenbait emozio zergatik aktibatzen diren, zer erreakzio kimiko eragiten dituzten eta burmuineko zein zirkuitu pizten diren argitzeko bidean. Emozioek logika dutela, kudeatu daitezkeela, katalogatu eta haiekin bizitzen ikasi genezakeela erakusten ari da. Gizakiarentzat emozioak isilaraztea ia ezinezkoa da, nahiz eta askotan hauek izendatzeko gaitasunik ez izan. Gure jokabideen oinarrian daude eta ondorioak eragiten dituzte, errealak dira hortaz, izendaezinak badira ere. Haserrea, edota



DANI BLANCO

beldurra, izendaezinak agian, haiekin bizi gara baina; bizi gaituzte.

Munduko Osasun Erakundeak 2020an gizartearen %20 buruko gaitzak jota egongo dela aurreikusi du. Gizarte ustez eta aurreratuetan, depresioa izugarri hedatuko dela uste da, ia biztanleriaren erdiak jasango du gaitza. Osasun mentala dago jokoan.

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2005. urtean emoziozko adimena sustatzeko programa jarri zuen martxan eta lurraldeko ikastetxeetako zuzendaritza taldeen eta irakasleen emozio trebetasunak garatzeari ekin zioten, gero ikasleekin lantzeko. Ez da ekimen bakarra, emaitzak ikusi beharko dira eta helburuak betetzen ari ote diren neurtu.

“Pila-pila maite zaitut” dio irribarrez, hiru urteko umeak laguna besarkatu eta musu ematen dion bitartean. Ez naiz pedagogian aditua, ez psikologoa, baina “maite zaitut” esaldiaren erabateko sozializazioa bi pailazori zor diegula esango nuke eta ez da bi sudur gorriokin dugun zor bakarra. Pirritx, Porrotx eta Marimotots-en abestien letrei erreparatuta sentimenduak izendatu, eta kolorea jartzen egiten duten lana nabarmendu nahi nuke. Hartu etxean duzun haien azken CDa eta hasi irakurtzen.

Izendaezina izendatuz hasten da bidea. ■

« Pirritx, Porrotx eta

Marimotots-en abestien letrei

erreparatuta sentimenduak


izendatu, eta kolorea jartzen

egiten duten lana

nabarmendu nahi nuke »

## HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Akabo futbola, oraingo. Eta betekadaren ondoren purga. Txirrindularitza eta arrauna. Tourra izaten dugu urteroko bakantza, bakantzen ari zaigun koadrilan. Dagoeneko alokatzen dugun etxeko jabeak etxekotzat gauzka. Gero eta metro karratu gehiago dugu bakoitzarentzat, eta furgona ere arinagoa. Handik jarraituko ditugu Moañoako estropadak, oriotarrak eta sanjuandarrak, orden horretan pozgai. Igor Makazaga, San Juango arraunlari eta prestatzaileak bere aita Kustodio ekartzen dit akordura, arroxaz baborretik San Juango traineruan eta Donibanekin eskubaloian zentral. Gogoan ditut fres-

## Bukatu da

ko, Lekuonan elkarrekin jandako txangurruak, txikitze aliketa behar ez genuen garaia. Bitxia izan zait san-

juandarren elastikoko urdina, arroxari distira kentzen diona, hala ere aurtengo Kontxan ikusi nahiko nukeena. Eta erdian herriak hautatutakoak Entzutegi Nazionalera, audientzia eskatu gabe eta Espainia naziotzat ez dutelako hara bortxatuak. Lagun pare bat eta dozena bat eza-gun, hemen biolentziarik gabeko edozer dela egingarri gezurtatzen duen zigorpean dauzkatenak. Horiek Tourretik eta estropadetatik urrun eman dituzte, maiteko nuke txirrindulariak eta estropalariak hurbilduko balitzaizkie demokrazia aldarrikatuz. ■

## BERTSO BERRIAK

Aitor Allaistur

### Elizari jarriak

NAGORE LEGARRETA



#### I

Badut dudamudarik  
nire barrenean  
Eliza gai gisara  
hartu dudanean...  
Jaungoikoaren eta  
euren izenean  
ez al dabilen asko  
debalde lanean  
munduko enpresarik  
aberatsenean.

#### II

Zenbatzen hasiz gero  
herriz herrikoa  
eliza kopurua  
da infinitoa.  
Beraz, badut zalantza  
kategorikoa,  
ez ote den eliza  
apostolikoa  
lehen espekulatzailerik  
urbanistikoa.

#### III

Kristautentzat izanik  
horren kristau onak,  
kardinalak, gotzainak  
zein elizgizonak  
sortarazi ohi dizkit  
zalantza sakonak:  
zer babesten dituzte  
bakarrik pertsonak  
edo eurak babesten  
dituzten poltronak?

#### IV


Armaniren sotana,  
urrezko kaliza,  
papamobil berrian  
luxuzko geriza...  
Pobreei laguntzea  
bada lehen premisa,  
ez dakit Aita Santu,  
ez dakit Eliza,  
guzti hau har daitekeen  
adibide gisa...

#### V

Hamaika artzai eta  
hamaika artalde,  
libre izanagatik,  
debekuen alde  
dabiltzalako egin  
nahi nieke galde,  
behingoz egin daitezen  
egiaren jabe,  
ba al den aingerurik  
deabururik gabe?

#### VI

Nahiz zalantzak agertu  
ditudan nabarmen,  
gure aiton-amonen  
aiten eta amen  
sinismenik ez nuen  
egurtu nahi hemen;  
pekatarien gisan,  
berandu baino lehen,  
konfesatu nahi nuen...  
Hala bedi, amen.



Bidali zure sortak [bertsoak@argia.com](mailto:bertsoak@argia.com) helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

**DOINUA:** "Agur sagar beltzaran".



Irati  
Jimenez

## Literatura

# «Moralistegia da gizartea eta moralistegiak gara denok»

Irati Jimenezen *Waterloo* eta *Zatitu arte* ipuinak ekarriko dizkizu ARGIAk datorren astean opari. Hori aprobetxatuz idazlearekin hitz egin dugu, udaz, haurtzaroz, tabuez, iraultza txikiez...

GORKA BEREZIARTUA

Argazkiak: Imanol Egido

Bi ipuin oso diferente ekarri dizkiguzu uda honetarako, baina esango nuke biek dutela puntu amankomun bat: haurtzaroa. Ume gine-neko garaia al dira material onena udari buruzko literatura sortzeko?

Nire haurtzaroko oroitzapen asko udari lotuak daude, hori egia da. Baina ez ditut bereziki horregatik idatzi, ez dut uste, idaztearen inguruko erabaki asko eta asko intuitzioz hartzen baititut eta hausnarketa askorik gabe. Aspaldi samar izan nuen *Zatitu arte*

idazteko ideia, bizkaieraren soinuei loturiko ipuin apur bat erotikoa-edo. Eta behin hori idatzita josi nuen *Waterloo*, orduan ere haurtzarora joanda, lehen ipuinarekin —orduan bai— halako osotasuna edo sortzeko.

Lotzen dituen beste ezaugarrietako bat inozentziaren galera ere izan liteke. Baina bitxia egin zait: lehenengo ipuinean heriotzarekin aurreneko kontaktua ez da batere traumatikoa; eta aldiz, sexua deskubritzea bai...



Umezaroari buruz idaztea ia-ia derrigor da inozentziaren hala-holako galerari buruz berba egitea, beharbada. Ez dakit baina iruditzen zait umezaroan aurkikuntza bakoitzak aldatu egiten gaituela eta iraultza horiek guztiek egiten gaituzte gero izango garena, beraz, jaiotzen garen unetik errealitatearen erpinak eta arantzak eta plazerak deskubritzen ditugun neurrian galtzen dugu mundua existitzen denik ere ez dakien umearen inozentzia. Heriotza eta sexua, horiek direnez ziur aski giza esperientziaren bi muturrak, ba, horiei buruz hitz egin dut haurtzarora joan naizenean.

**Zatitu arten tabuarekin jolastu duzula iruditu zait. Moralistegia al da euskal literatura?**

Moralistegia da gizartea eta moralistegiak gara denok. Batzuk moralista zorrotzak, gainera, inori nola bizi esaten diotenak. Beste batzuk moralista moderatuak, beraien buruarekin zorrotzegiak. Denok dugu, beharbada, barne-moralista hori, zigortu egin nahi gaituena eta gure beldurrez elikatzen dena bere burua zuritzeko. Plazer handia da nazkante horri arrazoirik ez duela esatea.

**Beste lotura posible bat: bai *Waterloon* eta bai *Zatitu arten* debekua edo agintea azaltzen da. Familia da bietan: osaba Anton aurrenekoan; izeko Mari bigarrean.**

Agintearekin dudak harremanaz asko hausnartu dut azkenaldian baina egia esan, ez nuke jakingo esaten hortik datozen bi pertsonaia horiek. Bai, ordea, liluratu egiten nauela agintearekin dugun harremanak. Txikitan, ezinbestean, zenbait pertsonaren agintea jarraitu behar dugu. Babesgabe jaiotzen gara erabat, gidaritza hori behar dugu. Zortea badugu maitasunez beteriko gidaritza izango da. Baina hazten goazen neurrian nola askatzen gara aginte horretatik? Eta ze neurritan jarraitzen dugu txikitako onspenen bila beti? Liluratu egiten nau horrek.

**Aginte horretatik ihes egiten ahalegintzen dira protagonistak: iraultza txikiak dira posible diren bakarrak?**

Txikiak gabe beste edozein nekez, agian? Bazen filosofo alemaniar bat, Erich Frömm, esango nuke zera zioena, errebelde garelako adimentsu garelako eta errebelde dela haurrak ez garelako adierazten duen lehenbiziko ekintza. Munduaz galdegiten dugula esan nahi du errebeldeak eta zera ulertzen dugula, badela “errealitatea” izeneko zera hori, kaos hori, jan egiten gaituena. Baina badela “gu” izeneko zerbait ere, errealitatearekin elkarrizketa izan dezakeela eta batzuetan, baita borroka txikiak irabazi ere.

**Nobelagile gisa ezagutzen zintugun orain arte; maratoin ondoren, erraz moldatu zara 100 metroko esprinean?**

Zaila zait ipuingintza. Erraz galtzen naiz eta luzatu. Baina oso ariketa ona da niretzat horretan saiatzea. Sintesira behartzen zaitu ipuinak eta ondo datorkit joko horretan aritzea. Irakurle moduan genero kutuna dut ipuina eta aspaldian idazle moduan tentagarri egiten zait. Ipuingileak miresten ditut, asko. Bitxia egiten zait beti galdetzen zaielako “eta nobela noiz?”. Eleberria ipuinaren hurrengoa edo hobe edo osatuagoa balitz bezala. Eta ez da. Bi genero, bi plazer desberdin. ■

Yorick Liburudendan edo  
**www.libreriayorick.com**  
eskura dezakezu

**Argitaletxearen  
azken argitalpena**

**Baba zango-horiak**  
**Catherine Zambon**  
(Itzulpena Txomin Heguy)

argitaletxea  
**Artezblai**



San Frantzisko, 15ren parean, 48003 - Bilbao / Tel: 944 795 287 / [www.libreriayorick.com](http://www.libreriayorick.com) / [info@libreriayorick.com](mailto:info@libreriayorick.com)

## Dantza

# Portugaleteko Nazio Arteko Folklore Jaialdia

## Nazioarteko folklorea gurean zabaldu duen jaialdi aitzindaria

Aurten 30 urte dira Portugaleteko Nazio Arteko Folklore Jaialdiak bideari ekin ziola... bigarren aldiz. Elai Elai dantza taldeak 70eko hamarkadaren hasieran egin zuen apustua, beste herrialde batzuetan arrakasta zeukan formula gurera ekarri nahian, eta ondo atera zaio.

UNAI BREA

ALDIZKARI HAU KALERATZEKO UNEAN egiten ari den Portugaleteko Nazio Arteko Folklore Jaialdiaren edizioa 36.a da, baina kenketa sinple batek ez dizu balioko kontuak egiteko. 1972an antolatu zen estreinakoz jaialdia, baina hiru urteko etena eduki zuen Franco hil osteko urteetan. 1980an itzuli zen, gaur arte.

Elai Alaikoek nazioarteko jaialdia antolatze-ko ideia eduki zutenean, nahiko gaztea zen taldea. 1962an sortu zen, besteak beste Jose Ignacio Beitia sestaotarraren eskutik. Bera da gaur egun Portugaleteko Jaialdiaren zuzendaria, eta berak lagundu digu historian barnako ibilalditxo hau egiten lehen urratsetatik: “1971n Perpinyà ingurura gonbidatu gintuzten; atzerriara gindoazen lehen aldia zen, ikusi genuen zer nolako jaialdi eredua zeukaten eta ideia inportatzea erabaki genuen”.

Clermont-Ferrandeko (Okzitania) jaialdi antolatzaileen elkarte batekin harremanean jarri ziren, eta azkar lortu zuten emaitza: hurrengo urtean, 1972an, lehenbiziko jaialdia egin zuten Portugaleten. Hastapenei dagokien apaltasunez, talde bi besterik ez zituzten ekarri, Irlandatik eta Frantziatik. Aurtengo edizioak, Elai Alaiz gain, sei partaide ditu, Europa, Asia eta Amerikakoak.

“Gutxirekin hasi ginen, baina guretzat bazen asko, taldeetako kideak non sartu ere ez geneukan”, gogoratzen du Beitia. Bizkaiko Zubitik oso hurbil dagoen hotela itxita zegoen garai hartan. Elai Alaikoak bertara sartu, hautsa kendu, era guztietako animaliak uxatu, zaborra atera, eta logela-lege batzuk atondu zituzten, espainiar ejertzitoak bidalitako oheekin. Ordu-

ko alkatearen bitartekaritzari esker lortu zuten ezusteko opari hura. Dantzaldietarako Areiltza Doktorearen Parkea aukeratu zuten.

Euri asko bota du lehen saio hartatik, eta Bizkaian beste leku batzuetan baino gehitxoago. Hori izan zen emanaldietarako beste leku bat aukeratu izanaren arrazoia. Baina horretarako 1980ra arte itxaron behar izan zuten. Ordurako, eraikita zegoen Zubialde kiroldegia, eta hura izan da Jaialdiaren eszenatokia orain dela oso gutxi arte. Azken urte bietan, jatorri itzuli dira, kalea. Klima aldaketa, nonbait.

Beste hobekuntza bat ekarri zuen 1980. urteak: Asti Leku ikastola berria. Hark ordezkatu zuen hotel zaharra, gaurdaino; urtero, ikasturtea amaitzen denean, Elai Alaiko kideek ikasgelak hustu eta logela bihurtzen dituzte. Baina 1980, batez ere, itzuleraren urtea izan zen, aurreko hiru urteetan ez zuten-eta jaialdirik antolatu. Espainiako Trantsizio esaten zaion hartan kaleko giroa konplikatu zen, “eta ez geneukan dirua ari ginen arriskatzin”.

Ez zeukatenez, bilatu egin behar. Horretarako, ia jaialdiaren jaiotzatik gaur arte dirauen formula ipini zuten martxan: aurrekontuaren zati bat –heren bat inguru– laguntza publikoekin osatzen da. Gainerakoa jaialdia “esportatuz” lortzen dute: urtero, Bizkaiko udal askotxok, eta baita Arabako eta Gipuzkoako batzuek ere jaialdiko taldeak kontratatzen dituzte euren herrietan dantza egin dezaten. Elai Alairen webgunean daukazu aurtengo programa, eta uztailaren 31ra arte garaiz astia baduzu. ■



ELAI ALAIK UTZIA

**NOBADADEA**

# Kosmoiet

## Izarretako misioa

Hemen duzu planeten misterioak  
argitzeko mahai jolas berria.  
Bihur zaitez espazio-ontzi azkar  
baten pilotu eta konkista itzazu  
Lurra eta Eguzki sistemako beste planetak.



+8



2-4



40-60 min.

**29 euro**

ARGIAren harpidedunek  
%15eko deskontua


**Ludi**toys

Eskaerak: 943 36 86 61  
info@luditoys.com  
www.luditoys.com

# Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

## Hitz gezidunak



Kike Amonarizen umorea

## Agindu zorrotzak

Sendagilea oso serio ari zaio mintzatzen gaixoari:

– Eta harik eta nik berriro kontrakoa esan arte, amaitu dira berriketak! Hurrengo hilabeteetan ezingo duzu ez erre, ez alkohola edan, ez sexuan jardun, ez jate-



txe garestietan afaldu...

– Eta bidaiatzea edo?  
– Are eta gutxiago! Etxetik ahalik eta gutxien aterat!  
– Eta hau dena noiz arte? –galde-tu dio gaixoak, desesperazioz, medikuari.  
– Nirekin dituzun zor guztiak kitatu arte!

## Soluzioa

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| N | H | E | Z | I | L | H | E | Z | I | L | N | A | Z | I | O | A |
| H | A | Z | I | L | H | E | Z | I | L | N | A | Z | I | O | A | A |
| F | I | N | A | L | J | K | I | A | N | U | E | Z | A | R | I | T |
| K | A | L | I | Z | Z | O | R | T | E | A | N | Z | A | R | I | T |
| B | E | R | R | E | N | T | E | Z | E | U | Z | K | I | N | A | N |
| U | S | U | A | R | R | A | O | S | A | T | U | A | F | I | T | U |
| B | I | Z | K | A | R | R | O | I | I | Z | U | R |   |   |   |   |

# Liburuak

KRITIKA

*Laugarrenak lau.*  
Gabriel Kortak.  
Autoedizioa, Itxaropena.  
8,40 euro.

Helduen literatura  
*Igor Estankona*



## Flashback Uhin Berrira

EKAINEAN Mikelazulon aurkeztutako liburuan bildu ditu Gabriel Kortak, 1951n Donostian jaioetako oreretarrak orain arteko lanak –zuzenduta eta egokituta– eta poema berri zenbait. *Laugarrenak lau* honen barruan kabitzen dira, honenbestez, *Isiletik*, *Okaranak* eta *Harri hautsiak* zaharrak, eta *Testigantza* zati berria. Koldo Cadiernoren marrazkiekin dator liburua.

Berezko autonomia duten lau poemategi dira, terapia egiteko lau ahalegin, lau ukendu bizitzaren kolpeen kontra, lau kantu naturari eta esperantzari. Puntu kardinalak batzen dira lan honetan: poesia lirikoa, deskriptiboa, filosofikoa eta soziala. Egituraz sotila eta hizkuntza aldetik musikatua, Gabriel Kortaren poesia anti-formalista da, nahiz eta Artzeren ondoren kontzeptu horrek asko ez duen balio: azkenean, Artzeren forma hartzen zaio guztiari.

*Uhin berri* mitikoaren uberan idatzia iruditu zaigu *Laugarrenak lau*, erretorika arean ahaztu horren arrastoan ondutakoa, behinola abangoardista eta beti konformismoaren kontrakoa eta barnera begirakoa. Naturak berak ere bat egiten du gogo-aldarte espiritual honekin, liburua zipriztintzen duten hainbat aipamenetan: “Izarrak kontatzen dituzu/ haiei so,/ morrontzan,/ bare kantatzen duzu/ bakardadezko hari hotzean,/ galaxia isilen misterioa/ zutaz jabetzen denean (...)”.

Unibertsoaren aurrean erantzunaren aiduru dagoenak “jainkoa” edo haren lekuan jar daitekeen beste edozein kontzeptu gura du ulertu. Gabriel Kortak behin baino gehiagotan aurkitu dugu izarrei beha, baina bista munduko gauza txikietan ere pausatzen du maiz: “Maite dut Hondarrabiko/ uraren zurrumurrua,/ txalupatxoek kulunka,/ uraren zurrumurrua.../ Maite dut,/ maite dut”. Halako poemen soiltasunak eta ariman kilimak egiteko daukaten gaitasunak harriturik utzi naute, kenduz-kenduz handitzen den zuloa bezalakoak iruditzen zaizkit, eta poeta gutxi da gai hain zimitz finekin egiteko sentimendu sakonei habia: barruan sustraitutako hitzak darabiltzalako ateratzen zaizkio idazleari, apika, hain kontzeptu gutxi, eta hain indartsuak.

Sentimendu sakonak eta poesiak soilik erantzun ditzakeen galderak lau koadernotan. Gabriel Kortaren dialektika bere buruarekin da, bakarrizketa gogorrean ari da, zuria eta beltza, argia eta itzala, justizia eta ilunbea aztertzen ditu bere burua aztertzen duenak bezala, sufritzen du eta maite du bihotza zabalik. Poesiaren formak behar bada iraungiko dira, baina espiritu hori ez da inoiz modaz pasako. ■

## ‘Behinola’-ren zenbaki berria

Joxan Ormazabal zena gogora ekarri dute *Behinola* aldizkariaren zenbaki berriko hitzaurrean. Ezin bestela izan: haur eta gazte literaturan figura garrantzitsua zen Ormazabal, eta haren galerak hutsune handia utzi du. Irakurtzen jarraitu behar da ordea, eta horretarako aukera ugari eskaintzen du aldizkariak: “Hitz eta Pitz” sailean hainbat idazle, editore eta ilustratzailerik galderak luzatu dizkiete, euskarazko haur eta gazte literaturaren panoramaren erradiografia egiteko. Inigo Astizen zortzi poema ere badakartza aldizkariak, haurrez gain, helduek ere gustura irakurtzekoak.



*Behinola 21.*  
Batzuen artean.  
Galtzagorri.  
60 orrialde.  
9,50 euro.

Eta, besteak beste, Ibon Egañak eta Mikel Ayerbek azken hamarkadetan generoak ganbaran bildu dituen liburuak atera dituzte. ■

## ‘Euskerazaintza’ zenbaki berria

*Euskerazaintza* aldizkariak zenbaki berria atera du 2010. urtearekin. 1978an sortu zen Euskerazaintza elkarteak, euskara batua onartu ez zuen pertsona talde baten ekimenek eta maiztasun aldakorarekin –azkenaldian urtean bi zenbaki– elkartearen izen bera daukan argitalpena plazaratzen dute. Azkeneko aldizkari honetan, Bizkaiko Jauntza hartu dute hizpide. Hiru ataletan zatitutako artikululu luzeak hartzen ditu aldizkariak 100 orrialdeak, errepaso historiko sakona egiten du eta, besteak beste azaltzen du noiz, zelan eta zergatik sartu zen gaztelania Bizkaiko Batzar Nagusietan, baita zergatik sortu zen “pase forala” ere. ■



*Euskerazaintza.*  
Batzuen artean.  
Euskerazaintza.  
100 orrialde.

# Diskoak

IKER BARANDIARAN



**Under the underground.**  
The Killministers.  
Autoekoizpena.  
Iraupena: 37'09".  
10 euro.

## Ezer ez asmatzekotan, melodia borobilak dituztenekin hunkitu

BAKIO INGURUKOA DA speed-aren errege Lemmyren arrasto faltua uzten duen taldea, harekin zerikusirik ez duena. Lan berria beraien kabuz kalera-tu dute eta ondo finduta dator gainera. Hain zuzen ere, kantuentzat norabide zehatzagoa finkatu dute oraingoan eta asmatu dutela esango nuke: ingelesez abestutako piezatan power-pop doto-reena (gitarra eta melodia borobilak osagai nagusi), Bostongo rock gitarre-koa, 60ko hamarkadako garage urtetsua,

garage ilunagoa edota AC-DCren hastapenetako usaina duten piezak erditu dituzte batez ere; baita Texasko balada izan daitekeen kantaren bat ere. Ohiko punk-rock eresiei bizkarra eman diete, eta hammond-ari eskerrak, kanta sinengarriak idatzi eta interpretatu dituzte. Undergroundaren azpiko sotoan bizi izateak ematen duen axolagabekeriak lagunduta, hazi egin dira.

[www.myspace.com/thekillministers](http://www.myspace.com/thekillministers)

### Etor Duandikoetxea - The Killministers

## «Ez dugu sonoritate berezirik bilatu katxarro 'vintage'-kin, gurea naturala da»

**Under the underground.** Infernua baino azpiago zaudete? Undergroundean ere ez dago guztientzat lekurik? Bai, hala da. Undergroundean ere bere estratifikazioa badago eta gure lekua elikadura katearen oinarrian dagoela konturatu ginen kontzertu oso intimo batzuetan eta komunikabideek egiten diguten arreta kontuan hartuta.

**Teklatu eta hammondak gero eta protagonismo handiagoa dute zuen kantetan. Abestietako hutsu-neak estaltzen dituzte?**

Bai. Gitarra bakarra izanda, teklatuek asko laguntzen dute eta baita pantailak egiteko, koroen antzeko efektua lortzeko. Orain gutxi Aterkings-eko Alberto gehitu zaigu taldera gitarra jotzen eta hori igarriko da.

**Oraingoan autoekoizpenaren alde egin duzue.**

Gu bezalako talde minoritarioei diskoetxeek tratua eska-

sa eskaintzen digute eta konturatu gara diskoa ateratzeko eta kopia batzuk saltzeko ez dugula beraien beharrik.

**Disko honetan aspaldiko taldeen sonoritatea eta nostalgia antzematen da. Nahita egin duzue?**

Ez dakit. Beharbada izango da aspaldiko taldeak nahiago ditugulako eta gure jotzeko erak gure gustuak definitzen dituelako. Hala ere, ez dugu inoiz sonoritate berezirik

bilatu katxarro *vintage*ekin edo gauza arraroekin. Alde horretatik gure soina oso naturala da.

**Gero eta urrunago dago taldearen izena jartzeko inspiratu zintuzten Lemmy...**

Bai, betidanik egon gara beraren-gandik urrun. Izena anekdotikoa da, baina oraindik etortzen zaigu kontzertuetara jendea Motörheaden kamisetak jantzita eta beraien omeneko talde bat garen esperantzaz, kar, kar, kar.

**Bonba nuklearra botako balute, power-popa eta 60ko hamarkadako garagea salbatuko zenituzkete?**

60ko hamarkadako asko; eta glam, punk, new wave, hard-rock, grunge eta australiar rockean salbatzeko modukoak daude. Baina biziki maite dugu power-popa: Raspberries, Cheap Trick, Romantics, The Knack, Hoodo Gurus... ■



# Ezpalak

JON TORNER

## “Kliklap” bideo lehiaketa abiarazi du Kanaldudek



ALDUDARRAK BIDEO, Kanaldude euskarazko herri telebistaren ekoizle den enpresak, *Kliklap* izeneko bideo lehiaketa jarri du abian. Aurkeztutako lanak bi sailetan banatuko dituzte: gai librea

dutenak batetik, eta *Zure euskarazko telebista gaur egun?* galderaren inguruan mintzo direnak bestetik. Euskaraz grabatu behar dira, eta hala egin ezean, euskarazko azpituak jarri beharko zaizkie. Irailaren 8a baino lehen helarazi behar dira Aldudarrak Bideo enpresak Arrosako (Nafarroa Beherea) plaza nagusian duen egoitzara. Bideo guztiak Kanalduderen webgunean izango dira ikusgai. Xehetasun gehiago [www.aldudarrak-bideo.com](http://www.aldudarrak-bideo.com) webgunean aurkituko duzue.

## Gaztezaparrada.info: Ipar Euskal Herriko gazteriaren bozgorailu

GAZTEZAPARRADA.INFO ekimen komunikatibo sortu berriak “euskal gazte ezkertiar eta abertzaleen bozgorailu izan nahi du”, proiektuaren sustatzaile Ekhi Erremundegik adierazi duenez. Gazte Zaparrada irratiaioa pasa den udazkenean sortu zuten Euskal Irratietan, eta orain webgunea abiarazi dute. Erremundegirekin batera, Itxaso Cuevasek eta Inge Arinek daramate irratiaio-webgunearen gidaritza.



Altzusta 38, 48144 ZEANURI  
+34 946 317 888 | [ellauri.com](http://ellauri.com)

Natura sentitu

**Euskal Herria Zuzenean (EHZ)** jaialdiak aurtan izan dituen galerak estaltzeko xedearekin, *EHZk bizi behar du!* kanpaina jarri dute abian, nahi duen orok laguntza eman dezan. Uztailaren 2an hastekoa zen jaialdia, Heletan (Lapurdi), baina lehen eguneko ekitaldiak bertan behera geratu ziren haize erauntsiengatik. Guztira 200.000 euroko galerak jasan zituztela adierazi zuten antolatzaileek. ([www.ehz-festibala.com](http://www.ehz-festibala.com))

**Delorean** eta La Bien Querida saritu ditu UFIk, Espainiako Estatuko 50 diskoetxe independente biltzen dituen elkarteak. Musika Independentearen Sariak Madrilan banatu zituzten: Zarauzko Delorean taldeak urteko artista onenaren saria jaso zuen, eta Ana Fernandez-Villaverde La Bien Querida musikari bilbotarrak artista errebelazio onenarena eta disko onenarena, *Romancero* lanarekin.

**Euskal Herriko Gazte Orkestrak (EGO)** *La Chanson de Roland* dokumentalaren soinu banda grabatuko du uda honetan. Orreagako gudari buruzko dokumentala Olivier Van der Zee zuzendaria ari da filmatzen, France 3 eta ETB telebistentzako. Zinema aretoetan ere emango dute.

● **Hasier Oleaga musikaria udako jazz jaialdiez mintzo da *Diario de Noticias de Alava* egunkarian:** «Aste batzuez, badirudi honetan gabiltzanok beste status batera pasatzen garela. Hori ez da erreala, hila-bete honetan amaitzen delako beti. Beti heltzen da martxoa, adibidez. Beti itzultzen da bizi garen errealtatea, eta hura oso urrun dago data hauetan ikus daitekeenetik. Okerragoa litzateke jaialdirik ez egotea, noski».

● **Xarma musika taldeko kideek Nontzeberri.com webgunean:** «Duela aspalditik nabaritzen dugu, musika eta musika taldeak krisian egon ez arren, musikaren industria bera krisian dagoela. Egia esan, ez genuen gure musika produktu bat bailtzen diskoetxeetako atea jotzen ibiltzeko gogo gehiegirik. Guk gure buruarengan eta egiten dugun musikarengan konfiantza daukagu. Abestiak genituen, diseinua ere, grabazioko gastuak guregain joan dira... zein zentzu dauka, lan hori guztia egin eta gero diskoetxe baten bila hasteak? Diskoetxeentzat ere ez da erraza izan behar ezezaguna den talde baten aldeko apustua egitea eta hori ulertzekoa da».




Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: [www.argia.com/harpidetza\\_haria.php](http://www.argia.com/harpidetza_haria.php)

# Abarrak

MIKEL ASURMENDI

## Mantis erlijiosoa

MUNDUKO FUTBOL KOPA iragan berri, mundua oihana begitandu zait. Adaburuz adaburu dabilkit irudimena. Horratx Hegoafrika-ko zuhaitzek laga dizkidaten abarrak:



✓ Hegoafrikako selekzioak irabaztea desio nuen. Hark irabazi ezinean, Boli Kostakoak. Azken unean Ghanak. Afrikarrek ezin irabazirik, nire gogoa jan nuen.

✓ Tigre ehizan nola halaxe begitanduzen zaizkit Afrikako selekzioetako jokalaria baloiaren atzean. Lantza eskuetan, aske. Basak. Estrategia eta taktiketarik libre –aurkariak baino libreago– orainokoa.

✓ Europatik (irletatik) Afrikara aldatu zen futbola behiala, jokoa basa eta zuzena izaki. Europara heldu diren afrikar jokalaria, tamalez, bezatzen ari dira –bezatu dituzte– ezari-ezarian eta emeki.

✓ Herbeheretarren eta espainiarren arteko finala ikusten nuela, futbol sistema eta demokrazia sistema parekoak begitandu zitzaizkidan: legeak egon badaude bietan, kontua –arazoa– legeak aplikatzeko moduan –eta orduan– datza.

✓ Futbola eta demokrazia sistemak ez dira parekoak edonola ere. Egokiak izanen badira, lehenak joko bertikala landu behar du, bigarrenak, aldiz, horizontala. Nire gustuko, bistan da.

✓ Demokrazian joko bertikala nagusia denez, indartsuen joko menperatzailea gailendu izaten da. Futbolean, aldiz, jokoa aske izanen bada –irletako jatorri itzuliz– jokoak bertikala izan behar du.

✓ Mendebaldeko demokrazia nola, halatsu futbola ere. Botere-tuen interesen arabera: bezatua.

✓ Futbola nola herriak hala. Edo halatsu. Espainiarrek alemaniarren menpean hartu zituztenean, Hernaniko erdialdean –ez auzoetan– etxafuegoak bota omen zituzten. Hernanin diot, ez Irunen. Espainiarrek herbeheretarren menpean hartu ondoren, Hendaian ere suziriak jaurti zituzten. Aspaldian sumatu genuena bete zen: Espainia Hendaian ere badago.

✓ Mendeak dira herbeheretarren –Hegoafrika geroago kolonizatu zuten berak– espainiarren menpekotasunetik askatu zirela, eta urteak –50. urte datorren agorrilean– joan dira Boli Kosta frantziarren tiraniatik askatu zela ere, baita Ghana Britainia Handikoaren zapalkuntzatik ere. Azken hauek Europako demokraziaren joko bertikalaren menpe segitzen dute haatik.

✓ Euskaldunok ere espainiarren eta frantziarren demokraziaren joko bertikalaren menpe gaude. Irletako futbol-joko bertikala –zuzen eta aske– egiten ahazten ari zaigu. Asimilatu gaituzte kasik!

✓ Adaburuz adaburu eta abarretik abarrera nabilela, katagorri izan gogoz, demokraziak eta futbolak –demokrazia arra da, futbola emea– koktel amnesiko paregabea osatzen dutela begitandu zait. Kopatik edan eta klik! Gozagarria. Mantis erlijiosoa bihurtzen gaitu. Txortan egin ahala baina, burua jaten digu. ■

## Atxaspi Hotela



*ametsetan bezala.*

Bittiria 24

Lesaka (Nafarroa)

T 948 637 536

hotela@atxaspi.com

www.atxaspi.com

# Osasuna

JABIER AGIRRE

## Beroa eta digestioa egiteko zailtasuna

BEROA ETORTZEAREKIN BATERA urdailarengatik kexatzen hasten dira pertsona asko. Digestio astunak eta beherakoak askoz ere ugariagoak dira udan neguan baino, eta ohitura aldaketak egoten dira sarritan arazo horien atzean. Oporrak aitzakia ezin hobe izaten dira, nahita batzuetan eta ezinbestean beste batzuetan, ohiko dieta aldatu eta hartzen ohituta ez gauden jan-edanak kontsumitzeko. Horrek, noski, ondorio txarrak izango ditu azkenean. Zorionez, aholku batzuk jarraituz gero, molestia horiek guztiak saihestu edo kalteak arintzeko modua izango duzu.

Egoera txarrean dagoen janari edo edari bat kontsumitzea izan ohi da udako beherakoen arrazoirik usuena. Eta beherakoak baldin badira ere sintoma nagusia, eta denetan traba gehien egiten duena, kolitisak sabeleko mina, goragalea eta gorakoa ere eragin ditzake. Hona hemen sintoma horiek guztiak prebenitzeko neurri eraginkor batzuk:

**Eutsi janariaren hotz-kateari.** Beraz, izoztuak poltsa isotermiko batean garraiatu behar dira, eta desizozteketan, hozkailuan.

**Garbitu itzazu gordinik jan beharreko barazkiak** edateko urarekin, eta bota ur horretara lixiba-tanta batzuk, mikroorganismoak eliminatzeko.

**Erabili laban bat produktu mota bakoitzerako** (haragiak, barazkiak...). Hozkailuan hobe janari gordinak plater edo ontzi berean ez nahastea. Horrela bakterioak elikagai batetik bestera pasatzea saihestuko duzu.

**Gorde hozkailuan etxean egindako saltsak**, eta lehen 24 orduetan kontsumitu. Arreta berezia eduki behar da arrautza edo esne-gaina duten saltsekin.



**Arroza eta platanoa dira urdaila behar baino gehiago "mugitzea" eragozten lagundu dezaketen jakietako bi.**

gabe eskatu beti. Ez hartu azala duen fruta edo berdurarik, ezta izozki artisaurik ere. Arreta-neurri horien guztien gainetik beherakoekin hasten bazara, hartu serum fisiologikoa eta eman atsedena urdailari egun batez edo. Ondoren dieta biguna, eta zoaz medikuarengana.

Oporren aurreko nerbioek ere zure hesteak eta urdaila normalean baino gehiago "mugitzea" eragin dezakete. Hori saihesteko, gehitu ezazu janari lehorgarrien kontsumoa (esate baterako arroza, platanoa, ogi txigortua) eta borrokatu estresaren kontra erlaxazio-teknikekin (arnasketa, yoga eta abar).

Kanpora bazoaz oporretan, behin helburuko herrialdera iritsi zarenean, kontuz ibili herrialde tropikalen bat bada. Botilako ura baikik ez edan, eta freskagarriak izotzik

## Zelula amekin egindako iruzurrari aurre hartzen

Zientzialari talde batek zelula amekin egiten diren tratamendu asko iruzur hutsa direla ohartarazi du. Internet bidez iragartzen dira batik bat horrelakoak, eta irtenbidea ere sarearen bitartez eman nahi dute: webgunea sortu dute halako tratamenduen bila dabilatzanei aholku emateko. <http://ttiki.com/14929> (Gaztelaniaz)

## Bizitza luzeagoaren "marka" genetikoa aurkitu dute

Bostoneko Unibertsitatean egindako ikerketa batean, konturatu dira 100 urte edo gehiago bizi direnengan askoz sarriago agertzen dela gene mota jakin bat. Azterketa egin duten zientzialariek eredu bat garatu dute, %77ko prezisioaz pertsona batek adin horretara ailegatzeko daukan aukera neurtzen duena. <http://ttiki.com/14931> (Frantsesez)

## Kanal ionikoak mintzagai Bilbon egindako biltzarrean

Uztailaren 12 eta 13an mundu osoko adituak bildu ziren Bilbon, kanal ioniko deritzen proteinen ikerketan egindako aurrerapausoez hitz egiteko. Kanal ionikoak gure oasunaren oinarrietako bat dira, eta haien disfuntzioak zerikusia du gaixotasun mota askorekin. Hona hemen biltzarra iragartzen zuen albistea. <http://ttiki.com/15252> (Euskaraz)

Unai Brea

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera

web garapenak
 multimedia
 aholkularitza
 edukiak

**iametza**  
interaktiboa  
[www.iametza.com](http://www.iametza.com)  
T.943 37 67 16

# Landareak

JAKOBA ERREKONDO

## Hatz-bizarrak belzten

INTXAURRONDOAK bere pean bizi nahi duten landareak akabatzeko pozoia darabil. Bere pe horretan intxaurrak jasotzen ditugunean, hazia inguratzen duen mamiaren urak, hatz eta azkazal belzten dizkigu. Belztaile hori da pozoia, kontuz bada Intxaurrondorekin bezala intxaurrarekin.

Oilanda busti, koittadu alaienok! Geure kultura eze-rezera eta izaera bereratzten ari diren kanpotarren ikur ere bada intxaurra, *Juglans regia*, hitzez hitz estatuaren babeslearen hotsandiko ezkurra. Milaka urtetan, amonaz amona, ehunka euskaldun belaunaldi mantendu dituen hurra (*Corylus avellana*) ostikoz jo eta haren ordeztu, intxaurra sartu dugu ospe eta ohore guztiz gure sukaldeetan. Eta jaki klasikoetan betikoena bailitza biziki miretsi; sagardotegietara begiratu... Sagardoaren, geu geutzen gaituen elikagai bakarrenetakoaren lagun min bihurtu dugu intxaurra. Eta, okerrera, betikoa dela esan, gainera; sagardotegietan bakailaoa eta txuleta besterik ez dela jan esaten den bezala, edo zutik jan dela bezala, edo sagardoa kristal meheko baso handian edan dela bezala, edo... Oilanda bustia baino okerragoa da bai oilasko harro ezjakina.

Zerutik zetorren hurra zelako, eltzetik eltzaur, gailendu ote zitzaion hurritzaren hurrari? Jakiena bakarrik ez, mitoen tokia ere irabazi zuen eltzaurrendoa, lizarra, artea eta haginari etxe atariko toki nagusia kentzeraino. Deabruaren arbola dela ere badiote, nekazaritza biodinamikoaren bueltan dabilzanek ez dute ikusi ere egin nahi. Intxaurrondo multzo ikusgarri batez inguratutako baserri bat erosi eta denak ipurditik bota dituenik ere bada. Beste muturrean, etxe barrurako altzaritarako intxaur-zura ikusgarri ordaintzen da, eta beltza bada itxuragabe.

Hilabete pare bat barru etxeko intxaurrak biltzerakoan hatz-bizarrak belzten zaizkizunean mutur haue-taz gogoratu, eta eskuak azkar garbitu... Herodes! Ala Pilatos zinen?



FOTORUFFIAN

## 72 ordu

Iruñeko Laetoli argitaletxeak gaztelerara ekarri zuen Franz J. Broschmer soziologoaren *Ecocidio. Breve historia de la extinción en masa de las especies* liburuan giza-kiak duen bioaniztasunaren premia azaltzen du. Adibidez, kukuprakatik (*Digitalis purpurea*) sortzen dugun digitalina toxina-botika ez bagenu, bihotzetik pattal dabilta hiru milioi inguru estatubatuar 72 ordurako hilko lirakeela dio.

Kukupraka (*Digitalis purpurea*).

**ALKARTASUNA**  
Usurbilgo Baserriaren Kooperatiba  
Ugarte Industrialdea 12 Usurbil 20170 Gipuzkoa

Elikagai ekologikoak •  
Usurbilgo baserrietako produktuak •  
Sagardogintzarako tresneria •  
Tratamendu naturalak •  
Onttoen haziak... •  
Banaketa zerbitzua •

**DENDAREN ORDUTEGIA**

Astelehenetik-Ostiralera: 9etatik-13tara eta 16etatik-19.30tara  
Larunbatetan: 9etatik-13tara

Tel/Fax.: 943 36 11 14

www.alkartasunausurbil.com • alkartasuna@usurbil.com

# Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

## Erdi Aroko Heriotzaren Izarra

ESKOZIA, 1449KO EKAINA. Filipe III.a Burgundia-koak kanoi erraldoi bat eraikitzeke agindua eman zuen, ingelesek eskoziarren aurka abiatu zuten gerran haiek izutu eta mendeen hartzeko asmoz. Edo horixe dio behintzat arma itzelaren jatorriari buruzko teoria onartuenak. Garai hartan ez zioten izen berezirik eman, baina VII. mendetik aurrera Mons Meg izenez egin zen ezagun. “Mons” kanoia probatu zuten kokaguneetako baten izena da, eta “Meg” Danimarkako Margareten omenez jarri omen zioten.

Kanoia osatzeko hiru urte eta erditik gora eta 1.536 libera –garai hartan, dirutza– behar izan

zituzten. Arma 4,6 metro da luze eta ia zazpi tona pisatzen du. 519 milimetroko kalibrea izanda, 183 kiloko balak ehunka metrotara jaurtitzeko ahalmena zuen. Burgundiako dukearen asmoa tiro bakarraz edozein harresi suntsitu eta etsaia mendeen hartzea zen. Eta tiro gutxi eginda horretarako gai zela erakutsi zuen, Nigel Tranterren arabera: historialari eskoziarrak Threave gazteluko zulo ikaragarriak kanoiak eragin zituela uste zuen. Beharko, tiro egin ondoren kanoiak ordubete baino gehiago behar baitzuen hoztu eta berriro tiro egiteko prest egoteko. Baina Mons Meg osatzerako gerra amaitua zen.

Horrez gain, garaiko arma suntsigarriena pisutsuegia zen praktikan. Gutxienez 50 pertsona behar ziren hura muntatu eta erabiltzeko, eta hogeitik gora mando batetik bestera mugitzeko; beti ere, distantziak oso luzeak ez baziren. Horrenbestez, zortzi urte baino ez zituen eman zerbitzuan eta gutxitan erabili zuten, kostu izugarriari etekinik ia atera gabe.

Hala Burgundiako dukeak kanoitzarra Eskoziako James II.a erregeari eman zion opari. Handik aurrera, Edinburgoko gazteluko zeremonietan soilik erabili zuten, azkenekoz 1680an, Albany eta Yorkeko dukeari ongi etorria egiteko.

*Star Wars* sagan, Darth Vaderrek eta Enperadoreak Heriotzaren Izarra asmatu zuten etsaia kolpe bakarrean suntsitzeko. Eta film hura egin baino 500 urte lehenago Filipe Burgundiakoa antzeko zerbaitetan saiatu zen, “alde ilunaren” ideia fikzio hutsa ez zela erakutsiz. Bietan, arma suntsitzaileak, azkenean, ez ziren erabakigarriak izan.



Mons Meg kanoi eskerga Edinburgoko gazteluan bisitatu daiteke gaur egun.

## Arrastoak

### Diru faltsua agerian

MONETA FALTSUAREN HISTORIA diruaren beraren historia bezain zaharra da ia. Horregatik, datorren urteko maiatzera bitartean *Moneta faltsua: Antzinarotik eurora* erakusketa ikusi ahal izango d Kataluniako Arte Museo Nazionalean. Garai guztietako iruzurrezko piezak biltzeaz gain, garai bakoitzean agintariak

faltsifikazioak nola jazarri dituzten eta iruzurgileek zer tresna eta teknika erabili izan dituzten azaltzen du erakusketak (argazkian, txanpon faltsuak egiteko moldeak). Azkenik, faltsifikazio berriago bat ere hartu dute kontuan: bildumagileak engainatzeko egiten diren antzinako txanponen kopia modernoak.



WWW.TESORILLO.COM

# «Gazteak harrizko gonbidatuak dira justiziaren aurrean»



## Julen Arzuaga

Areta (Araba), 1972.

Abokatua. Amnistiaren Aldeko Batzordeen aurkako auzian inputatu zuten. Zortzi abokatu daude kartzelan gaur egun. Bera izan zitekeen bederatzigarrena. *La maza y la cantera*-ren (Txalaparta) egilea da. Liburuan ageri denez, erruduntasunaren muga lausoa da oso.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Dani Blanco

### Nondik nora *La maza y la cantera* liburua?

Poliziak sarekada batean harrapatu ninduen gaztetan. Ez ninduten prozesatu, baina Gurasoak elkarteak fitxa bat betetzeko eskatu zidan. Duela hiru urte berriz, elkarte Aitziber Ezkerra –liburuaren egilea ere dena– eta biongana hurbildu zen. Gurasoak-ek gaztediaren eta errepresioaren inguruko elkartasun bilduma moduko bat egitea proposatu zigun. Behatokia [Giza Eskubideen Behatokia] etorri ziren baina lana pertsonala izan da. Gaztediari azken bi hamarkadetan gertatua ikertzea interesatu zait niri. Aitziberrrek informazio eta datuen bilketa egin zuen eta nik horien gaineko irakurketa egin dut.

Gazteen aldetik indarkeriarako joera izaten da. Zer ondorio atera duzu jarduera horretaz?

Guk konstatazio hau egin dugu –irakurle bakoitzak ondorioak aterako ditu–: gazteen aldetiko biolentzia egon badago. Historikoki herriko sektoreen arteko talka egon da, gatazka hitz batean. Oraingoan kalean agertu da bereziki. Kojon Prieto taldeko Gavilan kantariak “nork ez dio bota inoiz poliziarri harri bat?” esaten zuen. Alegia, indarkeria gazteen baliabidea da. Harria botatzea delitua al da, ordea? Halaber, guk harria botatzearen atzean dagoen motiboa agertu nahi izan dugu. Ondorio errepresiboak eta penalak ekar diezazkiokeela jakinda, zerk bul-tzatzen du gaztea hori egitera?

**“Gaztedia ere herriko harrobia da, eta bere helburuak herri honen etorkizuna”**

### Harriak *La maza y la cantera* izenburuari aipu egiten dio nolabait.

Silvio Rodriguezen kantua beste esanahi batetik abiatzen da: “¿Qué cosa fuera la maza sin cantera?” dio berak. Guk berri, “zer litzateke ekintza argudiorik gabe?” adierazi nahi dugu. Halaber, harrobia terminoa gaztediaren kontra erabili dela salatu dugu. Gaztedia ere herriko harrobia baita, eta bere helburuak herri honen etorkizuna dira. Gazteek proposatzen dutenak markatuko du ere herri honen geroa. Harrobia termino gutxiesgarria balitz bezala erabili dute batzuek: “Harria botatzen hasten denak ETAn bukatzen du” esan ohi da. Polizia Nazionaleko Cotino zuzendariak: “Harriak –edo koktel molotovak– botatzen dituzten ehun bat gaztetatik bost pistola hartzera pasatzen dira” zioen. Hori izan da argudio bat gazteek ETAn bukatzen dutela esateko. Kontrako argudioa

ere erabili daiteke: “Ehuneko beste 95ak ez dira pasatzen”. Teoria horrek, kuantitatiboki behintzat, ez du balio. Ordea, dinamika horrek gaztedia kriminalizatzeko aukera eman du. Edozein gazte errebeldek ETAn sartzea helburu zuela zirudien, eta hala tratatu dute. Eta ez hori bakarrik, jarduera publikoak eta legalak burutu dituztenak harriak bota dituztenen multzoan sartu dituzte.

**Estatuak fenomeno erabili du beraz.** Zigor Kodeak dioenez, legez kanpoko ekintza bakoitzeko erantzun penal bat dauka. Baina Estatuak ez du horrela begiratzen, Estatuak fenomeno sozio-politiko bat bezala hartzen du. Espainiako Estatuak AEBetako teoriak erabiltzen ditu. “Leiho hautsien teoria” deitua adibidez. Hau da: “Lehenengo delitu txikiaren aurrean, indar handiena erakutsi behar diegu gazteei, bestela denborarekin delitu larriagoak egingo dituzte”. Besteak beste “etsaiaren zuzenbidea egilearen zuzenbi-

dea, tolerantzia zero” teoriak marraztu dute Estatuaren jarrera.

**Gurean, iraultza edo subertsio moduko horren muina 1990eko hamarkadaren hasieran kimatzen hasi zen.**

Bai. Orduan gori-gorian zeuden poliziaren eta gazteen arteko istiluak, borrokak gorputzez gorputz dira, kalean. Estatuaren aldetik poliziak dira lehenengo protagonistak. Geroago baina, *¡Ven y Cuéntalo!* kanpainaren bidez turismoa erakrri nahi izan zuten. Herri hau polita dela erakutsi nahi zuten, baina Euskal Herrian iraultza moduko bat dagoela ezkutatzuz, subertsioa kaltetik erauzi nahi zuten. Protagonismoa poliziarena izanda ere, botere mediatikoei eta epaitegiei leku garrantzitsua eman zieten. Geroago Auzitegi Nazionala sartu zen. Legea aldatu eta indartu zen. Osagai guztiak batu ziren: botere legegilea, justizia, komunikabideak eta polizia abiadura handiz uztartu eta oliontatu ziren gaztediaren fenomeno politikoari aurre egiteko.

**Estatuko egituren artean tirabirak izango ziren halere.**

Gertaerak kasuz kasu aztertzen badituzu, inprobisazioa egon zela ematen du, baina ibilbide osoa harturik *in crescendo* eta akonpasatua doan dinamika zegoela ageri da. Batzuetan komunikabideek markatu zieten bidea epailei, eta bestetzetan fenomenoaren aurrean politikariak berak kontraesanetan erori ziren. Politikarien neurri batzuk gazteen “bergizarteratzearen” aldekoak izan zitezkeela ematen zuten, baina bestetan alderdietako zuzendaritzek edozein gazte atxilotzeko eskaera luzatzen zuten: “Efikazia behar da, ez justizia, presa dago-eta” zabaldu zuten. Auzitegi Nazionalan ere tirabirak egon ziren, epaile batzuek ekintzak terroristatzat jo zituzten zalantzarik gabe, bestetziek aldez “delitu hauek beste era batean kontsideratu behar ditugu” zioten. Auzitegi Nazionalari neurri demasa horiek aplikatzea kostatu zitzaion hasieran, baina goranzko dinamika nagusitu zen eta delituak terroristak bezala zigortzen bukatu zuen.

**Estatuak etsaitzat hartzen ditu herriar horiek eta gaztediak halaxe ere Estatua.**

“Etsaiaren eskubidea” teoria aplikatzen hasten denean, Estatuarentzat hiritarra etsai bihurtzen hasten da, eta kontrako zentzuan ere, herritarra hasten da pentsatzen Estatua ez dela demokratikoa. Gaiak tesi baterako ematen du. Poliziaren eta gazteriaren arteko harremana oso gatazkatsua izan da, eta nolabait esanda, termino kriminalistetan soil-soilik tratatua. Soziologo batek horrenbesteko etsaigo edo tema nola garatu den aztertu lezake. Bai Ertzaintzak gaztedia nola tratatu duen, baita gaztediak Ertzaintza –ahal izan duenean– ere; adibidez, Ander Susaeta ertzainaren kasua daukat gogoan.

**“Estatuak jakin izan du bortizkeria gradu horretara moldatzen, eroso sentitu da. Gizartearen zati handi baten aldetik sostengua zuela ikusi du”.**



**Bi aldeak oso hurbil zeudelako gertatu da horrela agian.**

Bai. Ertzaintzarendandik gertutasuna zegoen eta horrek errotzen zuen gorroto sentimendua. Agian Nafarroan Polizia Nazionalea —Foru Polizia beranduago kaleratu zen— urrutiko polizia bezala ikusten zen, arrotzago. Distantzia honek kalifikatzen du etsai sentimendua ere.

**Estatuaren eta gaztediaren arteko talka gatazka deituaren parametroaren arabera aldatzen joan al da?**

Torturari dagokionez, ez behintzat. Kale istiluengatik lehenengo kasua Larrinaga anaiena izan zen 1992an, David Garciarekin batera atxilotzean. Tortura ikaragarriak jasan zituzten Indautxun. Ordura arte, tortura bakarrik etakideek pairatzen zuten. Jauzia eman zen. Azken urteetan berriz, Segiko kideak torturak salatzen ari dira, bortizkeriazko ekintza zehatzekin lotu gabe ere. Zaila da orduko eta egungo torturak eta metodoak alderatzea, gehiago edo gutxiago ote dagoen. Egin al daiteke marra bat? Torturaren kasuan nik ez nuke egingo.

**ETAren aldetiko su-eten garaietan berriz, aldaketak izan al dira?**

2000. urtean salto ikaragarria izan zen auzitegiek ezartzen zituzten zigorretan. Lizarra-Garaziko Akordioaren garaian, ETAren su-eten amaitzen denean, Auzitegi Nazionalako txosten batek auzitegiaren barne dinamika berria ezarri zuen: “Orain arte horrelako ekintzak terrorismoa ote diren izendatzeko zalantzak egon dira, baina hemendik aurrera ez. Kasu guztiak terrorismotzat jotzen

ditugu, ahalik eta zigor handiena jarriko diegu” dio.

**Baloraziorik egingo al zenuke?**

Laudion 1996an gertatu zen sarekada daukat gogoan —nire anaia Igor barnean zegoen—. Auzitegiak su-eten garaian egindako epaiketan erabaki zuen Aretako tren geltokia erre zutela Euskal Herriko subiranotasuna aldarrikatzearen aldera. 18 hilabeteko zigorra jasan zuten gazteek. Handik hilabete batzuetara, ekintza berdinegatik 12 urteko zigorra jaso zuten beste batzuek. Balorazioa: gazteak harrizko gonbidatuak dira zirkunstantzia politikoaren menpe dagoen justizi administrazioaren aurrean.

**“Estatuak gaztediaren aurka gogor egin du ETAren jardunari erantzun nahian”**

**ETAren ekintzek eragin izan al dute erantzun errepresiboan?**

Dudarik gabe. Gatazka gogorragoa bilakatu ahala gehiegikeriak geroz eta handiagoak bihurtu dira. Baina, Estatuak gaztediaren aurka gogor egin du ETAren jardunari erantzun nahian.

**Zergatik eman dio jendeak torturaren existentziari bizkarra?**

Gatazkaren konponketara heltzen bagara, aztertu beharko litzateke alde batekoek zein bestekoek zergatik egin dioten muzin bestearen sufri-menduari. Egia da, gizarteak jakinda ere tortura existitzen dela, askotan, ez planteamendu politikoetatik, baizik tripetatik ateratako sentimenduen eraginez beste aldera begiratu du.

Bizitza pilo hondatuta geratu da, gizartearen zati handi batek bizkar emanda. Honi buelta emateko urteak beharko dira. Badago ezkutatu ezina den gauza bat ordea: tortura existitzen dela. Hainbat forotan torturatuak merezi izan dutela diote. Merezi badute non dago muga? Ba al dago Estatuaren erantzunaren eta gazteen ekintzen arteko proportzionaltasunik? Hurrengo urteetan aztertu eta argitu beharko litzatekeen gaia da.

**Zein neurrian ez du bilatu Estatuak biolentzia edota talka hori?**

Konspirazioaren teoria batzuen arabera, Estatuak gazteen jarrera biolentzia animatu du. Nik horrenbeste ez nuke esango, baina egia da, Estatuak jakin izan du bortizkeria gradu horretara moldatzen, eroso sentitu da. Gizartearen zati handi baten aldetik sostengua zuela ikusi du. Neurrigabekeri handiena eginda ere, ulertua zela. Hau da, gazte horiei auzitegiak zigorra hirukoiztu ez ezik, polizia torturatu zutela onartu du. Jendeak gazteek manual baten arabera aritu direla sinetsi du eta dena justifikatu da. Jendeak, gogaitasun sentsazio medio, prestutasuna izan du hori sinesteko, amaitu zaio pazientzia nonbait eta Estatuak esku gogorra medio egoera garaituko zuela pentsatu du. Horrek betiereko egoera batera eramaten gaitu. Ba al dago zurrumbilo horretatik ateratzea ordea? Tira, gaur egun jendea ari da saiatzen egoera beste modu batez bideratzen. Atzean geratu dena baina, ez da samurra. ■

**argia.com** Elkarrizketaren bertsio luzean, Gurasoak elkarteaz eta Martin Scheinin-ez.

Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz**.

**BFA DFB**  
Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia

## Bilboko Burtsa

# Atzo 50.000 pezetako haurra, gaur milioika euroko erraldoia

Aurten 120 urte betetzen dira Bilboko Burtsa sortu zela. Lehenengo egoitza Arriaga antzokiko *halla* izan zuen eta, hasieran, enpresen finantzazioa indartzeko eta hazten ari zen gizartearen aurrezkiak bideratzeko xedea zuen.

DANIEL UDALAITZ

HISTORIALARIEK eta adituek salbu, gure irakurle nahiz Bilboko, Bizkaiko eta Euskal Herriko herritar gutxik dakite edo gogoratzen dute aurten 120 urte betetzen dituen Bilboko Burtsaren jatorria. Eta gutxik jakingo dute Bilboko Burtsaren lehen egoitza Arriaga Antzokiko *halla* izan zela. Bada, aurten, uztailean, 120 urte betetzen dira Bilboko Burtsa, Euskal Herrian izan den eta gaur egun den bakarra, sortu zela. Madrilgoaren ondoren, Espainiako Estatuan sortutako bigarrena izan zen. Gero,artzelona-koa eta Valentziako sortu zituzten. Urteurren honen karira, hona hemen euskal burtsa erakundearen sorrerari eta gaur arte izan duen eboluzioari buruzko zenbait ohar.

## Bizkaia: meatzaritza, siderurgia, merkataritza

Bilboko Burtsa ez zen bat-batean, ustekabeen, sortu. XIX. mendean, Bizkaia meatzaritzaren, siderurgiaren eta Abratik abiatzen zen nazioarteko itsas merkataritzaren sorleku zen, baita siderurgia eta finantza enpresa handiena ere. Zenbait enpresa adierazgarri, hala nola Bizkaiko Labe Garaiak, ontziola historikoak —esaterako, gaur egun Eus-



ARGAZKI PRESS /MARISOL RAMÍREZ

Bilboko Burtsak ez du egoitza aldatu 105 urtean.

kalduna Jauregia den Euskalduna desagertua—, hainbat ontzi-enpresa —adibidez, Sota eta Aznar— banketxeak —berbarako, gero bat egingo zuten Bilboko Bankua eta Bizkaiko Bankua—, eta Bilboko Alde Zaharreko saltoki onak jendarte bizi eta lehiatsuen adierazle ziren.

1890ean Bilboren itxura aldatzen hasi zen, Zabalgunea hedatu

zutenean. Halaber, oso esanguratsua izan zen Bilbo Zaharra, Atxuri edo Encarnación auzuneen hazkundera, hau da, “errebal” deiturikoa. Iberiar penintsulako hainbat tokitatik Bilboko meatzeetan eta fabriketan lan egiteko etorri ziren etorrikin uholdeak auzo horietan kokatuko dira. Etorrikin horiekin batera sozialismoaren hazia ere sartu zen eta, hala, mugimenduak garrantzi berezia izango zuen Bizkaiko hiriburuan.

Orduan, gorpuzten hasia zen meatzaritza eta industria burgesiaren garai hartan apartekoa eta aristokratikoa zen Volantin pasealekua aukeratu zuen etxebizitza familiabakarrak eraikitzeko. Burgesia dirudunaren beste sektore batek Zabalgunearen erdigunea ez uztea erabaki zuen, baina etxebizitza

familiabakarrak ere eraiki zituzten hiri berriko hainbat tokitan (Gardoki, Henao, Gordoniz...). Gero, XX. mendean, euskal oligarkiaren parte bat Negurira mugitu zen.

## Burtsaren lehen urratsak eta sorrera

Bilboko Burtsa testuinguru sozioekonomiko horretan jaio zen.

## Agente multzoetatik pantaila elektronikora

Bilboko Burtsa, gainerako burtsak bezala, mundu teknologizatu eta globalizatuaren egotia berrira egokitu zen. Eta eragiketak nahiz horien eboluzioa "kantatzen" zituzten truke eta burtsa agenteen multzoak pantaila elektronikoek ordezkatu zituzten. 1989an izan zen, Bilboko Burtsak 100 urte bete zituenean, hain zuzen. Hala, ordenagailu bidez mundu globalizatu osoarekiko interkonexioa gauzatu zen. Merkatu jarraitua da. Diruak mugarik ez duen eta espekulazioa beste kontrolik ez duen mundua. Pertsonak, aldiz, ezin dute aske ibili mundu horretan bertan.

1989ko ekainaren 26an Bilboko Burtsaren Elkarte Gidaria eratu zen. Fineco Equities, Iberagencia, Mercagentes, Norbolsa, BBV Interactivos, Eurofinanzas, Eurocapital, BSN, Dinver eta HispanoBolsa taldeek osatu zuten elkarte. 2002ko



Goian, agente multzoak Bilboko Burtsan XX. mende erdialdean. Behean, egungo pantaila elektronikoak.

hirurtekoan, Bilboko Burtsak 46 milioi euroko mozkin gordinak lortu ditu.

otsailean Espainiako Estatu lau burtsak (Madril, Bilbo, Bartzelona eta Valentzia) azkenekoz bat egin zuten "Bolsas y Mercados Españoles" (BME) erakunde. Hamahiru elkarte artekaritu: ACA Sociedad de Valores, Ahorro Corporación Financiera, Banesto Bolsa, BBVA, Euskadiko Kutxa, Fineco, La Caixa, Mercagentes-Credit Agricole, Norbolsa, Renta 4, Santander Investment Bolsa, Société Generale España eta Galea Invest.

Azken hogeitun urteotan, 38,4 milioi eragiketa baino gehiago, 1,6 bilioi eurotik gorako balioa eta 107 milioi eurotik gorako mozkin gordinak —zergen aurretik— izan ditu Bilboko Burtsak. Soilik 2006-2008

1885ean Madrilén Merkataritza Kodea atera zuten Espainiako Estatu Merkataritza Burtsak sortzeko. Hiru bilbotar entzutetsu izan ziren Bilboko Burtsaren sorrera bultzatu zutenak: Antonio Plasencia, pinturazale amorratua, bere bilduma baliotsua Bilboko museoari utzikio ziona, hirian prestigio handia zuen Casimiro Acha eta Felipe Ugalde ekintzaileak.

1889ko azaroaren 20an, Juan Gurtubay, Andres Isasi, Hilario Luna, Carlos Jacquet eta Vicente Urigüen bilbotarrek Bilboko Burtsa eta Merkataritza Elkarte osatu zuten. Ezaugarri hauek zituen: iraupena, 25 urte; kapitala, 50.000 pezeta; helburu soziala, Merkataritza

Burtsa orokorra ezartzea. Administrazio Kontseilua lehen aipatutako hiru bultzatzaileek osatu zuten. Elkartek, hasieratik Bilboko merkataritza ia osoaren baldintzarik gabeko babesa izan zuen. Akziodun babesleen artean, hauek nabarmendu ziren: Bilboko Bankua, Jacquet, Isasi, Luna eta Clausen, Gurtubay,

**Maria Kristina Habsburgokoa erregeordeak Bilboko Burtsaren baimen dekretua sinatu zuen 1890eko uztailaren 21ean**

Epalza, Ybarra, Urigüen, Ugalde, Solaegui, Coste, Bergé, Palacio eta Rica.

Maria Kristina Habsburgokoa erregeordeak burtsa honen baimendekretua 1890eko uztailaren 21ean sinatu zuen. Burtsaren lehen saioa antzoki berriaren —Arriaga Antzokiaren— beheko solairuan burutu zen, 1891ko otsailaren 5ean. 1905eko maiatzaren soilik Burtsarentzat izango zen eraikuntza inauguratu zuten, Concordia eraikinare eta Iparraldeko geltokiaren alboan. Eraikinarena kostua, orubea barne, milioi erdi pezetakoa izan zen gutxi gorabehera. 120 urte geroago, Bilboko Burtsak han jarraitzen du. ■

**Babeslea: Gaindegia**



**Euskal Herria, garapen jasangarriko unitatea**  
**Euskal Herria Europako Batasuneko hego-mendebaldeko nazioa**

Eragile ekonomiko eta sozialen sarea  
Zatoz zu ere, EGIN ZAITEZ BAZKIDE. [www.gaindegia.org](http://www.gaindegia.org)

Gaindegia, Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia  
[gaindegia@gaindegia.org](mailto:gaindegia@gaindegia.org) • 943 304 365



Euskal Herria ekonomia eta gizarte garapenerako behategia  
Observatoire pour le développement économique et social du Pays Basque  
Observatory for the development economic and social of the Pays Basque

Iraide Ibarretxe

# «Hizkuntzalari dezente eurozentristak dira, ikuspuntua beti da ingelesa»

Santurtziar hizkuntzalaria munduan zehar ibili da ikerketa lanetan. Edozein eratako bidaiak baliatzen ditu lanerako; Gasteiztik Zaragozara bidean, autobusean, euskarazko onomatopeien hiztegia osatu zuen.

ONINTZA IRURETA AZKUNE



“Beste batzuetan kontrakoa da, nola hizkuntza arraroa den euskara, gauza arraroak egin behar ditu. Ikerketa egiten duzu eta esaten dizute: ‘A, hori zen guztia...’. Euskara altxorra da, ‘arraroa’ da, baina ez hainbesterako!”.

Iraide Ibarretxe (Santurtzi, Bizkaia, 1972) txikia zela joan zen Gasteiza gurasoekin. Haiekin ez, baina familiako hainbat kideri eta eskolari esker euskara ikasi zuen. Deustuko Unibertsitatean egin zuen Ingeles Filologia eta doktoretza egitera Edinburgora (Eskozia) joan zen. Ipurterrea da Ibarretxe eta bidaia-tzea asko gustatzen zaio. Orain, Zaragozako Unibertsitatean ari da ikertzen eta irakasten.

### Atzerrian asko ibili zara. Hizkuntzeki-ko nolako jarrera topatu duzu unibertsitateetan?

Interes handiagoa dago. Doktoretza-ko gaia erabakitzerakoan gainbegiraleak esan zidan: “Baina zuk euskaraz hitz egiten duzu, eta gaztelaniaz, eta ingelesez, eta beste hizkuntza batzuetan. Zergatik ez duzu zer edo zer egiten euskarari lotuta?”. Batetik, euskarak zerbait ‘arraroa’ dauka gaztelaniarekin edo ingelesarekin konparatuz. Bestetik, hemen [Euskal Herrian eta Espainiako Estatuan] hizkuntzalaritza hizkuntza batekin lotu ohi da. Hizkuntzalaria izanda, edozein hizkuntza aztertzeke aukera izatearen mentalitatea han [Edinburgo] bazegoen, eta oso-oso interesatuta zeuden euskararekin.

### Hizkuntza ‘arraroa’ esan duzu.

Hizkuntza gutxitua. Anekdotak besterik ez da, baina Edinburgon nabilela *National Geography*-ek era honetako izenburuko artikulua ateratu zuen: *The basques, the oldest people in Europe* –Euskaldunak, Europako jende zaharrena–. Eta haiek: “Zu euskalduna zara! Zuk hitz egiten duzu euskaraz”, “bai, bai, baina ez nago museoan!”. Tesian euskara, gaztelania eta ingelesa erabili nituen. Hala ere, euskara izan da erromantikoki nire hizkuntza. Batzuetan ez dakigu zer daukagun, kanpotarrek esan arte, eta hori niri gertatu zitzaidan.

Euskara isolatua da, baina europarra, eta oso interesgarria da edozein hizkuntzalarirentzat.

### Euskara balioztatzen dute. Aurrejuz-kuak ere izango dituzte bada.

Hizkuntzalariek, ez guztiak, baina dezente, eurozentrismoa dira, ikuspuntua beti da ingelesa. Orain dela urte batzuk ikerketatxo bat egin nuen ‘buru’ hitzaren inguruan. Erakutsi nahi nuen, euskaraz ‘buru’ hitzak nola ez duen adierazi nahi goiko zatia, baizik eta erdikoa edo muturrekoa. Gaztelaniaz eta beste europar hizkuntzetan beti da goikoa, baina euskaraz ez. Biltzar batean ikerketa aurkeztzen ari nintzen eta lehenengo galdera izan zen: “Hori nola frogatuko duzu? Ingele-

### “Zaragozako hizkuntzalari batzuek ez dute onartzen Pirinioetan zer edo zer hitz egiten dela, gaztelania ez dena”

sek desberdin egiten dute”. Kontra-ko galdera egiten baduzu? “Zergatik egiten du desberdin ingelesak?”. Ez dakit zenbat adibide ateratu behar izan nituen frogatzeko. Orduan, agian, esaten dizute baietz, behar bada euskaraz desberdina dela.

Beste batzuetan kontrakoa da, nola hizkuntza arraroa den euskara, gauza arraroak egin behar ditu. Ikerketa egiten duzu eta esaten dizute: “A, hori zen guztia...”. Euskara altxorra da, ‘arraroa’ da, baina ez hainbesterako!

### Eta Zaragoza aldean?

Zaragozako hizkuntzalarien munduan gauza arraroak ikusten dituzu. Euskararekiko gutxiago, baina ez dute onartzen Pirinioetan zer edo zer hitz egiten dela, gaztelania ez dena [aragoieraz ari da]. Esaten

baduzu Pazifikoko ez dakit zein irlatan 200 pertsona bizi direla, ez dakit zein hizkuntza hitz egiten dutela, bi dialekto dituztela eta abar eta abar, ondo iruditzen zaie. Aldiz, egoera horrek hemen [Zaragozan] arazoak baino ez ditu sortzen: hitz-tun gutxi daudela, ez dela hizkuntza, dialektoa baizik...

Hizkuntzalariez gain, herritarrek, bai aragoiera hitz-tun eta baita hitz-tun ez direnek ere, aurreiritziak dituzte. Bitxia da, ez dakit nongo hizkuntza arraroa bai, baina etxekoa ez da existitzen.

### Semantika eta onomatopeiak ikertzen

Semantika da lantzen duzun alorretako bat.

Hitzek ez daukate esanahi bakarra, asko baizik. Semantikaren bidez ikertzen dugu esanahi horien arteko erlazioa, motibazioa. Hitzak nork erabiltzen dituen, non erabiltzen diren aztertzen dut.

Tesian zentzumen aditzen polisia ikertu nuen. Esate baterako, hainbat hizkuntzetan, europarretan batez ere, ‘ikusi’ erabiltzen da ziur gaudela esateko: “Ikusten dut zer esan duzun”. Gizartean ikusmena da zentzu garrantzitsua, dena ikusi behar duzu, bestela ez duzu sinesten. Aldiz, ‘usaindu’ esateko euskarak aditz asko dauka. Ziur ez gauden zerbait adierazteko erabiltzen ditugu aditz horiek. Tesian gaztelaniazko *sospechar* esateko usaimena zergatik erabiltzen dugun eta kulturak hor zein rol jokatzen duen aztertu nuen.

‘Ikusi’ aditzera itzuliz, ulertzen dutela esateko ingelesek etengabe erabiltzen dute *I see* (ikusten dut). Australiako aborigenak ordea, entzumena darabilte horretarako. Indiako Andaman irlatan berriz, usaimena. Hor ageri da etnozentrismoa, europarrok horrela egiten dugu eta horrela izan behar du.

Babeslea: IVAP

“IVAPen misioa da Euskadiko Herri Administrazioetako pertsonak eta antolakuntza hobetzea, administrazio eraginkorragoa, efizienteagoa eta elibiduna lortzeko asmoarekin, eta zerbitzu publikoko zenbait balio komun oinarri hartuta. Horretarako, honako hauek egingo ditu:



- Euskadiko Herri Administrazioen zerbitzura dauden langileei etengabeko prestakuntza eman eta langileak hautatu.
- Euskararen erabilera administrazioan normalizatu dadin sustatu.
- Itzulpen ofizialak eta lege- eta administrazio-arloko euskarazko terminologia.
- Hizkuntzari, legegari eta antolamenduari buruzko aholkularitza, eta antolaketa eta kudeaketaren inguruko ikerkuntza.”



**Mugimendua eta espazioa kontzeptuak nola landu dituzu?**

Esate baterako, hizkuntza batzuek norabidea adierazten dute, gaztelaniaz *salir corriendo* esaten da. Ingelesez norabidea esateko partikula darabilte, *run out*. Hizkuntza batzuek gaztelaniaz bezala egiten dute eta beste batzuek ingelesez bezala, gainera bi hizkuntza horiek prototipoak dira. Hori lehen pausoa da eta bigarren pausoa honakoa: hori ondo dago, baina horrek esan nahi du hiztunok mugimendua eta espazioa desberdin ikusten ditugula? Diskurtsoan mugimendu hori inportantea bada gaztelaniaz aipatu egiten da, baina ez bada hain garrantzitsua ez da zehazten. Ingelesak bai. Itzulpenean ikusten da hori, mugimendua deskribatzerakoan ingelesetik gaztelaniara itzulitakoan zehaztasunak kentzen dira.

Euskara oso interesgarria da ikeretzeko zeren teoria orokorrak dio hizkuntzek ez dutela norabidea eta mugimendua azaltzen, aditza eman eta kito. Euskarak modua ez du hainbeste deskribatzen, baina norabidea zehaztasun guztiekin. Euskaldunak etengabe dio nondik nora: "Igela leihotik/amildegitik behera erori zen". Ingelesera edo gaztelaniara itzulita errepikakorra da. Norabidea eta mugimendua zehaztea ez da araua, adibidez ez baduzu aipatzen nondik nora ez dago gaizki gramatikalki. Alabaina, hor ikusten da zein diren euskaldun petoak eta zein ez.

**Nola?**

Euskaltegietakoko ikasleekin, batzuk EGAdunak ziren, igelaren ipuinaren proba egin nuen. Alegia, ihes egindako igelaren ibilerak kontatu behar zituzten. Inoiz inork ez zuen aipatzen 'amildegitik behera' eta horrelako esakerarik, igela erori zela eta kito. Hiztun guztiok gauza berberak deskribatzen ditugu, kontua da arreta zertan jartzen dugun.



**2006an onomatopeien hiztegia egin zenuen. Gai hori al da gehien gustatzen zaizuna?**

Orain bai. Hizkuntzalaritzan onomatopeiak edo ideofonoak ez dira ikasten.

**Ez?**

Betikoak ezagutzen ditugu, baina bestelakoak ez dira ikertzen, eta ez dira umeen gauza. Gaztelania daukagu erreferentzia eta hizkuntza horretan umeentzakoak dira asko, baina euskaraz gehiago dago.

**"Japoniera euskara bezalakoa da, onomatopeia asko dauzka. Desberdintasuna da hango filologoek onomatopeiak jorratzen dituztela"**

**Diferentzia dago beraz gaztelaniaz eta euskaraz?**

Euskarak onomatopeia asko, eta asko, eta asko, dauzka eta ez dira ez umeentzakoak soilik, ezta soinuaren imitazioa soilik. Arreta jarritz gero, konturatuko zara zaharrek gehiago erabiltzen dituztela guk baino.

Eskolan onomatopeiak ez dira agertzen. Edozein gramatikatan, —ez badira zaharrak, Azkue, Leku-

na...— ez dira agertzen. Niretzako, hizkuntza zaharra izatearen benetako ezaugarria da onomatopeia.

**Beste hizkuntzetan baino gehiago al ditugu?**

Gaztelaniaz gutxiago, ingelesez pixka bat gehiago. Baina, adibidez, japoniera euskara bezalakoa da eta asko dauzka. Desberdintasuna da hango filologoek onomatopeiak jorratzen dituztela. Afrikanistek ere landu dituzte, bantu hizkuntzetan eta asko agertzen dira.

Nire ustez gertatu dena da gaztelaniak eta Europako beste hizkuntzek, akademiak dituztenek, onomatopeiak herritar xumeen kontutzat hartu dituztela eta ez dute ikertzeko interesik agertu. Gure ikerketa eredu, besteak beste, gaztelania izan da eta horrek onomatopeiak gutxi landu ditu, eta gainera, euskararekin alderatuta gutxi dauzka.

**Ikusten dut zure bizio eta afizio direla onomatopeiak.**

Bai. Duela urte batzuk obsesionatuta nengoen gaiarekin. Lehen dendetan ez ziren agertzen, baina orain, batzuetan, denda berrien izenak onomatopeiak dira. Gernikan dago Tipi-tapa podologia, Korrikaren leloa ere halakoa izan zen. Argazki makinarekin ibiltzen naiz kalean, zerbait topatuz gero argazkia ateratzeko. ■

# Nairobi tarra <sup>rekin</sup> bidaia jolas

"Nairobi tarra: mundua  
ezagutzeko jolasa" k  
tokian tokiko  
bitxikeriak  
ezagutzeko aukera  
eskaintzen dizu.

33 €

Harpidedunek:  
-15%

Aukeratu  
kontinentea,  
ibilbidea, bota dadoa  
eta ekin bidaiari.

8 urtetik  
gorakoentzat

eskaerak

943 37 15 45 • [denda@argia.com](mailto:denda@argia.com)  
Ohiko salmenta puntuetan

 **argia**

## TALAIA

## Zein jolasetan ari dira aurrezki kutxak?

Aurrezki kutxen etorkizunaz ari dira hitz egiten. Horretan lagundu du PSOEk eta PPK hitzartu duten Kutxen Legearen erreformak. Beste behin Madrilen hitzartutako legea da, eta Hego Euskal Herrian ere eragingo du, inposatuko zaigu. Erreformak krisi ekonomiko finantzarioa du aitzaki eta kutxen pribatizazioari eta bankarizazioari ateak ireki dizkio. Erreforma baino lehen, Hego Euskal Herriko aurrezki kutxak urratsak ematen hasi ziren, diotenez, krisiari eta lehiakortasunari aurre egiteko. Nafarroako CANek hitzarmenak egin ditu aurrezki kanariarrarekin. BBK-k hainbat saiota porrot egin du. BBK-Kutxa bateatzeak kale egin zuen, gero Gaztela-Mantxako CCM bereganatzen saiatu zen. Ondoren, Valentziako CAMEkin Babeserako Sistema Instituzional bat hitzartzen saiatu ziren. Azkenean, joan den asteburuan, Cajasur bereganatzea lortu du.

Hego Euskal Herriko lau aurrezki kutxak, BBK, CAN, Kutxa eta Vital bakoitza bere aldetik dabil, kontuan hartu gabe Hego Euskal Herriko finantza sistemaren zati natural direla eta erakunde sendoa osa dezaketela. Egitura hori ez osatzeko arrazoi politikoak eta ekonomikoak daude. Horregatik, batzuentzat komenigarria da kutxa horiek Espainiako Estatuko beste erakunde batzuekin bat egin dezaten, bidean Hego Euskal Herrikoen arteko loturak urtu daitezten. Lau aurrezki kutxek batera, finantza gaitasun handia daukate eta kaudimen handia krisitik ateratzen laguntzeko. Batuko balira, gure finantza sistema eraikitzeak hasiera litzateke eta garapen ekonomiko eta sozialerako balioko luke. Horretarako, borondate politikoa behar da. Horren arduradun eta kudeatzaileek, aldiz, badirudi beste zerbaitetan ari direla jolasean.

Juan Mari Arregi

## EEPko Eiherabide zuzendariak kargua utzi du

ESTEBE EIHERABIDE izan da Euskararen Erakunde Publikoko zuzendaria orain arte, 2008ko urriaz geroztik. Berak adierazi duenez, Baigorri-Garazi Herri Elkargoko administrazio zerbitzuen zuzendari lanetan hasiko da urriaren 15ean.

## Pellot askatzailea

EUSKALTEGIAN zabaldu da, EGA gaintu ez zuen ikasle bat ikaskideak hiltzen hasi dela, halakoa da bere amorrua eta atsekabea. Botila barruko mezua bidez, ikasle horrek adierazi du bera ez dabilela ikasleak hiltzen, baizik eta animatzen. Pellot da bera eta ikasleak euskara ikastearen betebeharretik askatu nahi ditu. Bilboko Zenbat Gara elkarteak zintzilikatu du bideoa, euskara ikasleek egindakoa. Interneten, tankera horretako gero eta bideo gehiago ageri dira, umorea nagusi dela.

## BAHEA

Txerra Rodriguezek Garagoikoa blogean esanak:

“1981. urtean euskaldunak %50 baino gutxiago ziren herri guztietan euskarak irabazi egin du, guzti-guztietan. Baina 1981ean %50 baino gehiago ziren herrietan zer gertatu da? Ba herri askotan galerak izan dira, herri askotan. 2006an euskaldunen kopuru erlatiboa jaitsi da 84 herritan, Bizkaian eta Gipuzkoan (Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko daturik hobeto ez eman). Eta hango eskualde euskaldunenetan: adibidez, Tolosaldean 20 herritan, Busturialdean 15 herritan, Lea-Artibain 10 herritan, Goierri 9 herritan edo Uribe Butroen 8 herritan. (...) Mila aldiz egin dugu berba euskararen herriak sustatzeaz eta indartzeaz, ekimenak ere bideratu ditugu, baina atzeko atetik galtzen ari gara...”

# korrontzi

Zuzeneko berria, INFERNUKO HAUSPOA ikuskizuna  
(korrontzi & oinkari dantza taldea)

**2010/01/02 DONOSTIA** (DOKA - KULTURA LIVE)

2010/02/16 ERMUA (ORBE KARDINALAREN PLAZA)

2010/02/27 BERMEO - IBILALDI JAIA (FRONTOIAN)

2010/05/02 NESLE - FRANTZIA (FESTIVAL NUITS CELTIQUES)

2010/05/14 DONOSTIA (MIRAMON - ETB)

2010/05/16 BEASAIN (PLAZA)

2010/05/22 ORAZO - PONTEVEDRA (MANGUELO FOLK JAIALDIA)

2010/05/28 SODUPE - GÜENES

2010/06/25 TERUEL (POBORINA FOLK)

2010/06/29 SEGOVIA (FOLK SEGOVIA JAIALDIA)

2010/07/02 ONDARA VALENTZIA

2010/07/18 REGUENGOS DE MONSARAZ - PORTUGAL

2010/07/21 VALLS - TARRAGONA (PLAZA)

2010/07/22 VILA REAL DE SANTO ANTÓNIO (ALGARVE) - PORTUGAL

2010/07/23 GATIKA - BUTROI

2010/07/24 ALFANDEGA DA FÉ (TRAS OS MONTES) - PORTUGAL

2010/07/25 VILLABONA (ERREBOTE PLAZA)

2010/07/31 OLOST- KATALUNIA

2010/08/09 HUESCA (FOLK IBERICO JAIALDIA)

2010/08/11 AZORES (LARGO CARDEAL COSTA NUNES)

2010/08/13 ZARAUZ (PLAZA)

2010/08/26 LAUDIO (PLAZA)

2010/08/29 BERRIOZAR - NAFARROA (PLAZA)

2010/09/11 CASTRO VERDE (ALENTEJO) - PORTUGAL

2010/09/24 BASAURI (SAN MIGUEL)

2010/10/10 SEGURA (34. EUSKAL HERRIKO DANTZA TXAPELKETA)

2010/10/31 SAN ADRIAN - NAFARROA

2010/11/12 IRURTZUN - NAFARROA

2010/11/19 LEKUNBERRI - NAFARROA

2010/11/20 CASTEJON - NAFARROA

2010/11/21 ELIZONDO - NAFARROA

2010/12/08 DURANGOKO AZOKA (PLATERUENA)

**KONTRATAZIOA ZABALIK**

Baga-Biga musika bulego integral eta globala  
618072076 / 026

baga-biga musika ideiak  
telef. 618 072 076 / 026  
www.baga-biga.com / info@baga-biga.com

## San Marko, bozgorailu eta sinbolo

**EAJ, PSE ETA H1** lasai dira dagoe-neko, Ezker Batuko lehendakari Ricardo Ortega San Markoko Mankomunitatetik kentzea lortu dute, orain arte erakunde honetan EBk eta ANVk zuten nagusitasuna hautsiz. Ez ei da Usurbil, Hernani eta Oiartzunek indarrean jarri duten zaborren atez ateko bilketari aurre egiteko. Baina bai, agerikoa da baietz. Mankomunitatearen kudeaketa txarra aipatu da kargugabetearen arrazoi gisa, baina aginte aldaketa hau oraintxe eman da, justu Hernani eta Oiartzun atez ateko bilketari ekin eta bizpahiru hilabetera.

Zalantza barik, ez da kasualitate. Usurbilen duela hiru urte atez atekoarekin hasi zirenean inork gutxik pentsa zezakeen esperientzia hark laster jarraitzaile garrantzitsuak izango zituela. Munduko beste leku askotan egiten bada ere —Italia eta Katalunia aitzindari dira—, aurkakoek herri txikietan baino ez duela balio argudiatu ohi dute Usurbilgo arrakastari begira. Eta halako batean, maiatzean, ia 20.000 biztanleko herrian jarri zen indarrean, Hernanin, eta posible eta arrakastatsua dela ikusi da berriz ere. Deba Goieneko Mankomunitateak ere atez atekoari ekingo diola jakinarazi du, bertako udalek hala onartzen badute behintzat.

Bai, argi da atez atekoaren zabalkundeak ekarri duela EAJren eta PSEren akordioa San Markora. Finean, bi sinbolo jartzen dituelako aurrez aurre: atez atekoa eta erraustegiarena. Zaborra kudeatzeko bi eredu. Atez atekoak zero zabor kontzeptua du oinarri, bigarrenak zabor ugari kontzeptua, “balorizazio energetikoan” oinarritutako erraustegiak zabor ugari behar baitu energia sortzeko eta berau errentagarri egiteko. Atez atekoak ez du dena konpontzen,



zalantzarik ez, hor geratzen da birziklatu gabeko %20 inguru (Usurbil eta Hernaniren kasuetan esaterako), baina erraldoien urratsa da zaborraren kudeaketan adostasuna nagusi den bi kontzeptutan: birziklapena eta berrerabilpena.

Ezker abertzalea gaiaz “baliatzen” ari dela entzuten zaie zenbait politikariri, beraien interesak defenditzeko “erabiltzen” dutela zaborren gaia. Eta bai, izan liteke, baina ez iruzkinon ikuspegi negatiboan, erabat positiboan baizik. Ezker abertzaleak egiten duena erabat zilegi izateaz gain, inteligentea ere bada, aspaldikoz egunerokoan arazo handia denari alternatiba egiazkoa eta zentzuzkoa eskaini diolako. Hamarkadetan “borroka nazionalaren”

**Betoz Ezker Batua eta ezker abertzalearena moduko aliantza partzial horiek, zabor kontuetan gero eta gehiagok dioena —Kaliforniako estatua, Grenpeace, ELA, Gipuzkoako EA...— gauzatzen ari baitira**

totemari bueltaka jardun du ezker abertzaleak, ohiko arazo handien aurrean “marko aldaketa”ren bandera astinduz. Oraingoan, arazo handi bati egiazko alternatiba eskaini dio, noiz eta azkenean borroka armatuaren gaia atzean uzteko hautua egin duen garaian.

Betoz halako “baliatze” eta “erabilera” ugari, hori baita azken finean politika egitea, euskal gizartetik ezker abertzaleari behin eta berriz eskatu zaiona. Betoz eta lehia daitezen leial eta demokratikoki. Eta betoz Ezker Batua eta ezker abertzalearena moduko aliantza partzial horiek, zabor kontuetan gero eta gehiagok dioena —Kaliforniako estatua, Greenpeace, ELA, Gipuzkoako EA...— gauzatzen ari baitira. Finean, bi eredu egin dute talka San Markon: Mendebaldeko gobernu gehienek sostengatu eta politikoki zuzena bezain faltsua den jasangarritasun ofizialaren eredu, eta planeta eta pertsonen osasuna zaintzearen aldeko eredu.

Zubietako erraustegiaren moratoria errealista eta posible da. Gaia gori-gori da eta datozen udal eta foru hauteskundeetan Gipuzkoan puntako gaia izango da zaborrarena. Hobe, beraz, San Marko moduko bozgorailuak ondo lotzea.

PELLO ZUBIRIA

# Mexikoko narkoen aurkako gerraren bederatzi mito

Uda honetako albiste garrantzizkoetako bat Vienako Agiria gerta daiteke: Brasil, Mexiko eta Kolonbiako presidente ohi diren Fernando Henrique Alonso, Ernesto Zedillo eta Cesar Gaviria drogaren kontsumoa despenalizatzea aldarrikatuko dute bertan. Narkotrafikoaren kontrako gerra famatua huts egite handia izan dela azalduko da.

MARIO OJEDA GOMEZ MEXIKOKO medikuen elkartearen presidentea izana da. Joan den otsailan *Una guerra sin fin en sentido contrario* izeneko artikulua plazaratu zuen, herrialde hark narkotrafikoari deklaratuako gerra galdua zenez bide berriak aldarrikatuz.

“Narkotrafikoaren kontrako gerrak –idatzi du Ojedak– hiru urte bete ditu. Hilak, gehienak banden arteko liskarretan gertatuak, 15.000tik gora dira. Armadaren parte harzteak, inkestak araberak gizarteren gehiengoaren oniritzia duen arren, giza eskubideen bortxaketatik salaketak jaso ditu. Anartean, drogen kontsumoa handitu egin da Mexikon, AEBetako droga trafikoa ez da gutxitu eta handik gurerako arma inportazioa ere ez”.

Ojeda medikuak aitortzen du askoren iritziz Felipe Calderón presidentea narkoei gerra deklaratu ziela armada mobilizatuz hobetzeko hauteskundeak oso modu eztabaidatsuan irabazi izanak utzitako irudi kaxkarra. Baina ezin esan Ojeda militante antisistema bat denik: lotsagarri deritza Ararteko mexikarrak narkotrafikoaren kontrako gerran militarrek egindako demasiak ikertu eta salatu izana.

Baina iritsi da une bat Mexikon non jende ordenazalea ere nekatzen hasi den narkoen kontrako ditzosozko gerraren ondorio latzekin. Gerra

hau agintariak ez dira galtzen ari, baina irabazterik ez dute lortzen. Eta okerragoa dena, auzoko AEBak ez dira inplikatzeko behar bezala, ez baitaukate beren arazotzat. Azkenetako, Mexikok jartzen ditu estatuaren irudi txarra, milaka hildako, nahas-mendu politiko ikaragarria. Aldiz, AEBetan kontsumoak bere hartan darrai; okerrago dena, gringoek ez diote hesirik jartzen AEBetatik Mexikora arma trafikari.

Alternatiba bilatu behar eta, gero eta ugariagoak dira drogak legeztatzea aldarrikatzen dutenak, ñabardura ezberdinekin, baina legeztatzea. Mario Ojedak berak gogorarazi du 1919tik 1927ra, AEBetan alkoholak oro, garagardoa barne, debekaturik egon zirenean Chicagon bertan 250 gangster akabatu zituztela, Al Capone iritsi zela bere agindupean 700 pistolero edukitzera. Eta odoluste hark alkohola desagertarazteko balio ez zuela jukatu zutenean, AEBtako agintariak 1933an desegin zutela debekua. “Merkatu beltza eta bortizkeria desagertu ziren –idatzi du Ojeda doktoreak– eta AEBak ez ziren alkoholikoz bete”.

Hainbestearino barnatu da Hego Amerikako eliteetako buru argitsuenetan drogen despenalizatu beharra, ezen eta hilabete honetan Brasil, Mexiko eta Kolonbiako hiru presidentea ohi aurkeztekoak ziren Vienan

Mexikoko gobernuak narkotrafikoaren kontrako gerran lortutako kolpe historikoen artean aipatzen da 2009ko apirilean Vicente Carrillo Leyva “El Ingeniero”ren (Infosur agentziaren argazkian) atxiloteta. Ordura arte bera buru zuen Juarezeko kartelak hilean AEBetara 20-30 tona marihuana eta beste hainbeste kokaina pasatzen omen zuen. Agintariak Carrillo Mexikoko 40 gaiztagin bilatuenen zerrendan zeukaten, hura atxilotzeko bidea irekitzen zuenari 2,1 milioi dolarreko saria aginduz. Kolonbiarekin aspaldi urratutako bideari segituz, Washingtongo agintariak narko mexikarren estradi-zioa ere eskatzen dute; ez dugu inon aurkitu Vicente Carrillo entregatu dietenik. Narkotrafikoaren kontrako gerrarekin gauzak gaiztotu egin dira urteotan Mexikoko karriketan. Azken finean, AEBetan droga berdin kontsumitzen da, eta kriminalitatea da Mexikok ateratzen duen errenta bakarra.

drogen kontsumoa zigorgabetzeko proposamena, horretarako baliatuz HIESari buruzko biltzar bat.

Bitxia egiten da Carlos Henrique Cardoso bezalako politiko kontserbadore bati irakurtzea *El País* egunkarian: “Drogen kontrako gerrak ez du funtzionatzen. Errezeta berria behar dugu”. Arazoa da ilegalizazioa herritarren burmuinetan sakon errotutako aurreiritzi eta mitoetan gotorturik dagoela. Horiek eraistea kosta egingo da.

## Noren mesederako gerra?

Oraindik sarritan aipatzen da, drogen kontrako gudu famatua auzitan dagoenean, Madrilgo ekonomilari eta irakasle Carlos Resa Nestaresek 2005ean plazaratu zuen honako papera: *Nueve mitos del narcotráfico en México (de una lista no exhaustiva)*. Fro-gatu gabek sineskeriek zein bide luzea egin dezaketen darakus.

“Droga ilegalen salerosketak nazioaren segurtasuna mehatxatzen du”. Agintari gehienek entzun zaie Mexikon. Resaren ustez gudu-hizkera erabiltzen da bestelako helburuak lortzeko, izan gringoek plazer egitea, gaiaz preokupaturik azaltzea edo, batik bat, militarrek inplikatzeko.

“Drogen salerosketa Mexikoko ekonomiaren zutabeetako bat da”, Gezurra, dio Resa irakasleak. 2000ko datuetan, Barne Produktu Gordin



mexikarraren %0,5 baizik ez zen. Horri gehitu beharko litzaizkioke, dio ironiaz Resak, bai komunikabideek eta bai segurtasun indarrek drogaren kontura fakturatzen duten guztia.

“Drogen inguruko ekonomia eten gabe ari da hedatzen”. Hori baieztatzen duen daturik ez dago. Aitzitik, AEBetako merkatuari dagokionez, alderantzizkoa da joera: marihuana kontsumitzaileak 1970eko hamarkadako ena dira, kokaina kontsumoa asko jaitsi da eta antzinako heroina epidemia ez da berpiztu. Mexikoko drogen exportazioa jaitsi egin zen 1990tik 2000ra.

“Trailaren 11ko atentatuak ondorioak izan zituzten Mexikoko droga industrian”. Ez da horrelakorik ageri estatistiketan.

“Poliziak drogak harrapatzeak ondorioak ditu drogen merkatuan”. Asko aipatu da prezioak igoarazi dituela errepresioak. Resaren kalkulutan trafikatzaleek produkzioa handitzen dute, lehengo prezioan saltzea segurtatzeko. Ondorioz, prezioan eraginik ez badu eta kontsumoan ere ez, errepresioaren fruitu bakarra da kartzelak betetzea.

“Drogaren inguruko bortizkeria gertatzen da trafikatzaleek lurraldeak kontrolatu nahi dituztelako”. Hori filmeek sortutako mitoak omen da, zeren Resaren ustez “drogaren esportazioa da denik eta gairik antiterritorialena”. Trafikatzaleek bezeroak dituzte monopolizatzen, ez lurraldeak. Izatekotan, lurraldea da polizia edo funtzionari ustel batek

trafikatzaleari lagatzen dion eremua.

“Drogaren industria da Mexikok jasaten duen bortizkeriaren erantzule nagusia”. 2004 arteko datuak direla kontutan hartuta –geroztik hainbeste aldatu ote dira gauzak?– bortizkeriazko heriotzen estatistikek horrelakorik ez dutela erakusten dio Resak. Egia da droga trafikoaren munduan bortizkeria oso basatia izaten dela, trafikatzaleak kobratzeko berme ofizialik ez daukanez indarra erakutsi behar duelako, baina bezeroak uxatzea ere ez zaio komeni. Bortxazko heriotza tasak estatuz estatu alderatuz, droga trafikoarekin zerikusirik ez duten batzuk ikusten ditu zerrendetan buru, hala nola Guerrero, Chiapas eta beste.

“Estatu Batuetako gobernuak baimendu zuen Mexikon droga lantzea Bigarren Mundu Guerran”. Mexikoko narkotrafikoaren historia gehienak hasten dira esanez Sinalaoko mendietan nola hasi ziren mitxiletak ereiten gringoek gerrako zaurituentzako morfina saltzeko. Hau ere mito frogarik gabekoa omen da. Egia esan, Mexikok AEBekiko drogen kontuan jokatzen duen hornitzaile papera esplikatzeke ez dago konspirazioetara jo beharrik: gringok dira kontsumitzaile dirudunak, mexikarrak nekazari pobreak eta garraioaren arriskuak beren gain hartzen dituzten bitartekariak.

Mitoak mito, hasieran aipatu Mario Ojedak dioenez, zenbat eta AEBek drogari bidea gehiago hesitu, orduan eta gordinagotzen da bortizkeria Mexikon. Orduan, galdetzen du bukatzeko Ojedak, nori egiten dio mesede gerra honek? ■





**ZINKUNEGI  
OPTIKA**  
Hernani, 23 · 20004 Donostia  
T. 943 420 624  
[info@zinkunegioptika.com](mailto:info@zinkunegioptika.com)  
[www.zinkunegioptika.com](http://www.zinkunegioptika.com)

zuri begira

Jose Ignazio Ansorena

## Libertadea

**L**ibertadea eskatu diogu herri hontako Alkate Jaunari eta jendea alegratzera gaur gera gu honera etorri. Entzun, herri maitia,

alaitu jendiak,  
bixiguak ez du eman,  
aurtengo neguan.  
Antxoak emango du  
azaltzen danian,  
irabaziko degu  
hurrengo batian.

Joxe arrantzale zaharrak kantatzen zuen abestitxo hau, nire gazte garaietan. *Libertadea*, gauez kalez kale festa giroan ibili ahal izateko Udalak, ikusirik eskatzaileak nor ziren, ematen zuen —edo ez— baimen txartela zen. Argiro zehazten zuen zein baldintza bete behar ziren —zein ingurutan, zein ordu arte eta abar—. Bestela, isuna edo zulora.

Jai egun goizetan txistularion goiz deia jotzera joaten naizenean, sarri bururatzen zait *libertade* hori. Ez ote litzatekeen berriro eskatzen hasi beharko. Donostiako Alderdi Zaharreko kaleetan, asteburuko parranden ondoren, biltzen den zaborra, txiza usaina, nazkagarrikeria ez dago hemengo laburrean zehazterik. Hori dena gailurrera iristen da “*edozein herriko jaietan*”.

\* \* \*

Bixiguak ez zuela eman, baina antxoak emango zuela. Bizipoz ederra garai haietakoa. Egun kontuak askotxo aldatu dira. Bixiguak ez du aspalditik eman eta antxoak ere emateari utzi zion. Soilik urte batzuetan arrantzaren etena mantendu denean hasi da antxoa errekuuperatzen.

Munduko arazo latza da aldaketa klimatikoa. Zientifiko gehienek ustez, neurrigabeko anabasa sor lezake gure planetan. Baina lur auzoko gehienok baldar eta berandu erantzuten ari gara. Tarteka ahobero ibiltzen gara agintarici eskatu behar zaizkien kontuekin. Exijitu egin behar zaizkie noski. Eskatzeko modurik eraginkorrena, hala ere, mundua



DANI BLANCO

bideragarri bihurtzeko kultura modua sortzea da. Horixe da urgenteena.

Gure artean, ordea, gai honen inguruko eztabaidarik sutsuenak atez ateko bilketaren edo erraustegiaren aukerei buruzkoak dira. Horrela sinplifikatu dugu, beti ere herri honetako ohitura errepikakor eta gogortu berberaz: bi jokabide politiko erabat aurrez aurre jarrita. Baina askok, aipatzen diren aukeren artean nahikoa interes jarri dugun arren, oraindik ez dugu garbiro ikusten zein izan daitekeen erarik zuzenena gure zaborrak desagerrarazteko. Agian biak, leku eta egokieren arabera.

Argi ikusten dugu, aldiz, lehen baldintza dela askoz zabor gutxiago sortzea. Eta horretarako jendearen heziketa behar beharrezkoa dela, bereziki gazte jendearena, etorkizuna beraiena delako. Beste modu batean bizitzen ikasi behar dugula. Era apalago eta ziur aski zoriontsuagoan.

\* \* \*

Talde ekologistek Euskadiri zortzi bandera beltz eman dizkiete. Eusko Jaurilaritza beste bandera batzuekin lanpetuta dabil eta txikikeria hauei ezin erreparatu die.

Joxe arrantzale zaharraren Donostiako kaian, egun arrau-netako txalupa txikietan ere Guardia Zibilak, legea bete-araziz, atzealdean Espainiako bandera eramatera behartzen du. Bestela isuna eta ez txikia. Munduko Futbol Txapelketaren harira behin eta berriz gogorarazi digute: “*Porque más que un equipo somos un país*”. Eta

Epaitegi Konstituzionalak, Kataluniako Estatutua aitzakia, zehaztu eta gogoratu du nolakoa den *país* hori.

Antxoarekin egin den bezala, beste kontu askotan ere etena egin behar dela iruditzen zait. Neurri gabeko juerga neurrigabean bizitzeko ez du ematen dagoeneko munduak.

Gure *libertadea* txartelan, honelako baldintza jartzea nahi nuke: “*Para ser un país (o un mundo), tenemos que ser un equipo*”. Baina euskaraz eta nahi dugun banderatzatxoa popa aldean. ■



Munduko Futbol Txapelketaren harira

behin eta berriz gogorarazi digute:

“*Porque más que un equipo somos un país*”.

Eta Epaitegi Konstituzionalak, Kataluniako


Estatutua aitzakia, zehaztu eta gogoratu

du nolakoa den *país* hori



ASTE HONETAKO

# zozketa



## Xarma Jatetxea

Afaria  
bi lagunentzat

Tolosa etorbidea 123, behea  
Donostia GIPUZKOA

[www.xarmajatetxea.com](http://www.xarmajatetxea.com)



1

## Esait

5 kamiseta  
opari

Oiartzun GIPUZKOA

[www.esait.org](http://www.esait.org)



2



## Txuri-Urdin

2 harpidedunentzat launa  
sarrera opari

Anoetako pasealekua, 24  
Donostia GIPUZKOA

[www.eltxuri.com](http://www.eltxuri.com)

Palacio de Hielo Izotz Jauregia  
**TXURI-URDIN**  
Donostia

3

## Bidaia handia

Anna Castagnoli &  
Gabriel Pacheco

5 liburu opari

### Txalaparta Argitaletxea

Navaz y Vides, 1  
Tafalla NAFARROA

[www.txalaparta.com](http://www.txalaparta.com)



4



## Gartxot

2 liburu opari

[www.argia.com/denda](http://www.argia.com/denda)

5

## AZKEN IRABAZLEAK (2238. Argia)

### UROLA

• Jose Maria Seguroa Amutxastegi (Gasteiz)

### INGURU ABENTURA

• Belatzikieta Herriko Taberna (Zornotza)  
• Justo Ezenarro Mugaguren (Bilbo)  
• Ainhoa Larramendi Muxika (Donostia)

### TXORIA TXORI

• Kepa Gorordo Basaras (Durango)  
• Ardatz Kultur Elkartea (Gasteiz)

### AQUARIUM

• German Kortabarria Igartua (Getxo)  
• Bolintxu Aek Euskaltegia (Basauri)  
• Jose Antonio Zubeldia Gaztañaga (Donostia)  
• Migel Anjel Mintegi Larraza (Beasain)

### ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

• Malentxu Arrospide Arrate (Lizartza)  
• Xabier Zuzarregi Salaberria (Zizur Nagusia)  
• Idoia Atxaga Mendizabal (Hernani)  
• Jaione Garmendia Lasa (Lazkao)

\* Bisitaldiatarako epea: Bi hilabete

## PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • [gunea@argia.com](mailto:gunea@argia.com) • [www.argia.com/gunea](http://www.argia.com/gunea)

# Eskuratu *Zumetak* ARGI Arentzat egindako lan-grafiko originala

 **argia**



## EZAUGARRIAK

- Edizio limitatua
- Jose Luis Zumetak eskuz sinatutakoa
- Testura bereziko paper naturalean egina
- 50x40 cm
- ARGIAko harpideek izango dute lehentasuna
- 160 €

## ESKAERAK



943 37 15 45



gunea@argia.com



www.argia.com/denda

*Zumetak*